

INOZENTZIO OLEA

GOIERRIKO LORAK

GOIERRIKO LORAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

98-99

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

ORDAINDU BEARRAK:

Urte betekoa: 420 pezeta	Atzerrian: 560 pezeta
Ongilleak: 700 " "	Ale bakarra: 50 "

INOZENTZIO OLEA

GOIERRIKO LORAK

AUSPOA LIBURUTEGIA
1970

© **Auspoa Liburutegia**
Tolosa (Guipuzcoa)

Depósito Legal. S. S. 555/70
IZARRA - Peña y Gofñi, 13
San Sebastián-Septiembre 1970

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Irakurleai	15
Nere jaiotetxeari	17
Eizerako griña	23
Artzaia eta baserritarra	31
Basarriri, bere berrogei ta amar urte bete- tzean	38
Aita-semeak	42
Emaztea muxinduta	45
Euskera eta eskolak	48
Tratalaria	53
Gure bolatokiak	58
Eztaiak Mendarte'n	63
Bertso-txapelketa	69
Sarrera nai	74
Nai ta eziñ... ..	77
Bi gazte	84
Aita Santuaren itzak	89
Gona motxak (<i>Minifaldak</i>)	94
Loiola-irratiko bertso-txapelketa	99
Eutsi familiar!	101
Sasi-eiztaria	103
Maiorazkoak eta neskatxak	106
Xegundo Galarza'ri	110
Mutilzarra eta ezkondua	115
Bizia	120
Udaberria	122
Xalbador	124
Zumarraga'ko <i>Galeperra</i> alkarteari	130

Agur, seme	133
Segura'ko madura	137
Maixuak	140
Eskerrikasko	145
Loiola'ko erri-irradiaren estualdia	148
Zegama ta zegamarrak	155
Eiztarien billera	160
Bertsolari-sariketa	165
Illobari erantzuna	170
Gipuzkoa'k ere unibersidadea nai	173
Neskatxen Arantzazu'ra igoera	178
Bertso berriak, nere lengusu Joxe Aldanondo'k aginduta jarriak	182
Au agin bearral	198
Gizonaren eskubideak	203
Zurkeria nagusi	208
Joxe Olaizola ill da!	213
Au bizimodual!	217
Muniategi'ri	223
Biotz-aldaketa	227
Patxi Altuna'ri	232
Legazpi'ko pestak	237
Gaztediaren alde	239
Loiola'ko erri-irratia laguntz-premian	244
Mutikoak maixuari, bere urte-betetze egunean	247
Sasi-eiztari bati	249
Ordañetan	251
Aitaren samiñak	254
Gaurko idazketak	258
Eiztariak	267
Mojatxo bati	272
Loiola'ko Iriondo'tar Joxe Mariri	274
Emakumearen jabetasuna	277
Joxe Luis Gorrotxategi'ri, Zeuta'n	282
Bat-bateko bertsoak	286

ITZAURREA

Izen egokia aukeratu du Inozentzio Olea jaunak bere bertso liburua bataiatzeko: «Goierrri'ko Lorak».

Lora usaidunak, irakurleak liburu on-tan arkituko ditunak.

Bertso-jartzalle egokia, ziñez, gure Olea.

Ba-daki nundik nora dabillen; ezagutzen du lanpidea.

Mamiz, giarrez, neurriz eta abar, akats gutxi arki diteke Olea'k borobildutako bertso-tan.

☆ ☆ ☆

Gai asko darabizki bertsolariak.

Batzuk gogozkoago izango zaizkitzu besteak baño.

Jatetxe sonatu batean sartzen zeralarik ere, jaki errenkada luzea emango dizute eskutara. Karta izenekotik egiten dezu aukeramena.

Gogozkoenak eskatzen dizkiotzu serbitzariari.

Ta, zuretzat gogozkoen diranak gerta diteke beste batentzat ala ez izatea.

Beste orrek, zuk baztertutakoak aukeratuko ditu beretzat.

Geienok ao-sapai desberdiñekoak bai-gera.

Sukaldari onak aterako dio bakoitzari bere sustantzia; emango dio bere kurpilla.



Sukaldari on ete trebea degu Olea.

Artzen dun gaia artzen dula, an du bertsolari arrastoa.

Bertso txukun eta piñak bereak, baña erri kutsurik galtzen eztutenak; edozein bertsozaleren eskutan jarri ditezkenak.

Apaiz eta sendagilleak bezin gustora milixkatuko dituzte artzaiak. Osoro uler-tu (konprenditu), ta duten zumu guzia atera.

Emen dago, nere uste apalean, bertso-lariaren meriturik aundiena; erri kutsurik ez galtze ontan, alegia.

Kutsu ori galtzen duna ezpaita egitazko bertsolari.

Itz-neurlari, olerkari, edo... zuk nai dezuna!

Bertsolari ez beste guzia.

★ ★ ★

Zerain'go barrutian sortua degu gure bertso-jartzalle apaña. «Mendarte» izeneko baserri batean, ain zuzen.

Bikañak dira benetan jaiotetxeari eskeintzen dizkion amabost bertsoak.

Onoko au moldatu zunak ba-daki bertsoa zer dan:

Emen igaro nitun
unerik onenak,
nere gaztearoko
pozak eta penak;
emen egin nituen
amets zoroenak,
iñoiz egi biurtu
ezin ditezkenak,
baña bizitz au zerbait
gozatzen dutenak.

Banaka-banaka, liburu mardul ontako

bertso danak aztertzen dituzularik, arkitu-
ko dezu gogoan artzekoa pranko.

Ondoren datorren au ere, begira zein
eztitsua dan:

Nik ezagunak ditut
ontzaren oiua,
eta udaran kirkil
alaien saiua;
zeruan, patxaratsu
jiraz, arraiua,
orobat enaratxo
bizkor ta iaua,
nola damutuko zait
ementxe jaiua?

☆ ☆ ☆

Ez esan gure bertsolarien lanak poesi
arrastorik eta ikuturik eztutela.

☆ ☆ ☆

Gai sakon eta jostalari, danetik ba-dizu
egilleak.

Eiztari purrukatua izanik, dotore asko
agertuko dizkitzu eiztarien atarramentuak.

Zeuz, irakurle, eiztaria bazera, amaika
aldiz esango dezu zeure baitan:

«A zer egiak esaten ditun itz gutxitan!»

Gure auzoko agure zar batek esan oi zuna datorkit gogora: Ardo txarrik ezta-la; batzuk besteak baño obeak izatea.

Nekez arkituko dezu ardo txarrik eta exkaxik Inozentzio Olea'ren ardandegian.

Lenera nator. Batzuk gogozkoago izanngo zaizkitzu besteak baño.

Gai batzuk gustokoagoak dituzulako besteak baño, baño beti, kalidade oneko ardoa. Ondo biribildutako bertsoak, alegia.



Auspoa bildumari jantzi aundi bat ematera dator Olea'ren liburu au.

Bertsozale asko aspalditxotik konturatuak daude gaur Legazpi'n bizi dan zeraingar onen balioatzaz.

Askotxok dauzkate ebaki ta jasoak «Zeruko Argia» asterokoan argitaratu izan ditun alé gozoak.

Liburu ontan arki zenitzake danak; an argitaratuak eta an argitaratu gabeko beste asko. Ezta liburua bezelakorik idazle ta bertsolarien lanak bizirik iraun al iza-

teko. Egilleak munduko aldia bukatuagatik, egindako lanak emen geldituko dira.

☆ ☆ ☆

Berriketa geiago gabe, asi zaite, irakurle, Olea'ren baratza miatzen. Arkituko dezu lili usaintsurik.

Betozkigu ugari onen mallako bertso-jartzalleak! Ama euskeraren goibeltasuna uxatzeko ta urrutiratzeko olako asko bear genituzke.

Ataria da gutxienekoa, ta nik atariraño ekarri zaitut.

Sar zaite, irakurle, Olea'ren etxean; sar zaite barrumbe zabal, atsegin ortara.

Liburuari ekin dezaiozula eska nai nizuke. Au dezu Olea'ren etxea: ikusi ta aztertu begi ernez.

Kanta alai ta irripartsu, etxe leiotatik, bertsorik bikañen eta entzungarrienak.

Ba-daukazu nun eta zer aukeratu.

Basarri

IRAKURLEAI

O, irakurle maitagarriok,
bildurrez natorkizute!
Goierri-lore auen usaia
gustatuko ote zaizute?
Nola diran zuentzat
artu batzuek beintzat,
eta barka zaidazute
gaizki landatu ditudalako
zimeltzen bazaizkizute.

NERE JAIOTETXEARI

1/ Pago, aritz ta gaztaiñ
mardulen tartian,
Mendarte izeneko
baserri batian
sortu nintzan mundura,
Zerain'go partian.
Nere jaiotetxea
berriz ikustian
poz-malkoak datozkit
begiak betian.

2/ Txoko irripartsua,
gozo ta epela,
nere begiak bai zu
maite zaituztela!
Uste det nik oraintxe
txoratu naizela;
sinistu bakar-miñak
ekarri nauela,
enaratxoa lengo
kabira bezela.

3/ Emen eman nituan
lenengo pausoak,
zaindari nituala
nere gurasoak.
Ziran kristau zintzo ta
euskaldun osoak;
bi begiak illuntzen
dizkit gaur lausoak:
nik eziñ aiengana
luzatu besoak.

4/ Ai, nere aurtzaroko
kaiola apala,
ni bai emen alaiki
jostatzen nintzala!
Nun dezu ni goxatu
ninduan magala?
Eta babes sendo zan
aitaren itzala?
Ez al dakizu oso
maite nituala?

5/ Emen igaro nitun
unerik onenak,
nere gaztearoko
pozak eta penak;
emen egin nituan
amets zoroenak,
iñoiz egi biurtu
ezin litezkenak,
baña bizitz au zerbait
gozatzen dutenak.

6/ Ementxe jaio nintzan,
baita ere azi,
zutzaz oroitu gabe
ezin naiz ni bizi.
Jaunak eman zizkitzun
makiña bat grazi;
naiz nere maitetasun
dana zuk merezi,
senti dedan guzia
nola adirazi?

7/ Ez dakit nagon esnai
edo amesetan:
Eguzkia jostatzen
zuaitz-ostoetan?
Batzuetan argi ta
illun bestietan,
orra izar guzien
jauna kuriketan
nere etxe ondoko
baso ederretan.

8/ Lenen pozak nabaitu
nituan tokira
etorririk, ezin naiz
aspertu begira.
Juan zan zoriona
ez liteke jira,
esan eziñ alako
poz aiek nun dira?
Ai, berriz eskuratu
al baldin balira!

- 9/ Zaude ain leku eder
eta apañean,
Euskalerriko bazter
mardul bikañean;
zu goratzeko itzik
ez det mingañean,
baña maiteko zaitut
al dedan aiñean
biotzaren barrutik
geigo eziñean.
- 10/ Udaberri alaia
onuntz irixtian,
lore-mota guziak
zelaiak betian,
errekaxo-ertz eta
sasien tartian.
Nere inguruak, aiñ
eder ikustian,
zentzun danak txoratzen
zizkidan batian.
- 11/ Baso ostotsuetan
kantari kukua,
birigarrua ere
berritxu askua,
atsegiñez beterik
nik berriz kolkua.
Nun beste lur-zati bat
au bezelakua?
Gorde zazu euskaldun,
ene Jaungoikua!

- 12/ Nik ezagunak ditut
ontzaren oiua,
eta udaran kirkill
alaien saiua,
zeruan, patxaratsu
jiraz, arraiua,
orobat enaratxo
bizkor ta iaiua.
Nola damutuko zait
ementxe jaiua?
- 13/ Zeñen polita ziñan
negu latz otzian,
elurrezko maindire
txuriz estaltzian!
Gero, geldi-geldika
elurrak urtzian,
soro, baso, zelaiak
billoiz gelditzian,
zer trixtura nabaitzen
nuan biotzian!
- 14/ Nere txoko kuttuna,
maite zaitut lendik,
mundu ontako bazter
polit danen gaindik.
Lengo euskal-usaia
daukazu oraindik;
alabearrez juan
nintzan ni emendik,
baña biotza eziñ
aldendu zugandik.

15/ Bazter alai, ostotsu
ta zoragarria,
biotzaren pozgarri
atsegingarria,
asetzen didazuna
maite-egarria!
Nere seaska bigun
estimagarria,
ez aundizkia baña
bai maitagarria!

EIZERAKO GRIÑA

(Doñua: «Ai gure antziñako guraso
nobleak...»)

1/ Aurten ere jua da
amillka Urrilla,
eiztarion illa;
bazan naiko zarata
eta iskamilla.
Gure apizioa
etzegoan illa,
aspaldian ez nago
langille abilla,
bertso jartzeko ere
astiaren billa.

2/ Eginkizun guziak
utzi baztarrera,
au dek jokaera!
Eiztariok burutik
sanoak al gera?
Premi ederra baña
ez jua lanera,
dauden mokau goxoak
etxetik atera,
ordekotan lokatza
ekarri atzera.

3/ Aurten goiz genituan
neurri danak artu,
bai garaiz oartu,
zapaldu bear diran
griñak nai indartu.
Nere kopradikoak,
ez arren zakartu,
udazkenean danok
oi gera zabartu,
baña nola arraio
au buruan sartu?

4/ Egoaizeak danok
jartzen gaitu ernai,
goizetikan alai,
gu errenditzerikan
ez uste nolana.
Emazte gaxoa or
gure kulpaz esnai,
zaratak astinduta
umeak ere bai.
Eiztarien etxetan
nork lo egin lasai?

5/ Illunpetan mendira
juan bai goizian
usoen pozian,
baña oiek ez datoz
nai degun guzian.
Piparmindurik jira
pasatu ezian,
ala ere ez gera
aspertzen eizian.
Gure itxaropena
or dana aizian.

6/ Alkarren ingurura
biltzen geranean
umore onean,
ezta giro izaten,
ez, aldamenean,
bazar danak erreko
genituzkenean,
etxera etortzeko
utsik azkenean.
Ustea erdi ustel
baita geienean.

7/ Tira bear danean
ez gera oso zur,
kastatzeko bildur;
menditik berakuan
utsik, buru-makur.
Atzoko kanta berdiñ
berdiña degu gaur:
«Pasa ezian eztek
arrapatzen samur!»
Geure buruak garbi
egi edo gezur.

8/ Utsik etxeratzean,
betiko modura,
ene, au trixtura!
Ai, zenbat damutasun
datortzen burura!
Au da mixeria ta
eskale itxura!
Eskupeta zergatik
ez bota putzura?
Kontuz-kontuz etorri
gure ingurura...

9/ Oiñetako zikiñak,
zuloak galtzetan,
loa begietan,
lapurrentzat ezer ez
albazorroetan.
Legor jua eta blai
egiñ geienetan,
lokatz-talo galantak
ipurtaztaletan;
ondo errukarriak
gera gu benetan!

10/ Bertso auen bitartez
esan dituanak
egi utsak danak;
zer dion ondo daki
eiztaria danak.
Neke auek etziran
andreak emanak,
baizik neronen gustoz
artu nituanak.
Gajoak ni txukuntzen
oraiñ dauzkan lanak!

11/ Artu ditut amaika
aldagoi ta bisuts,
dana egiñ tximuts,
baña griña txar onek
berriz putzura bultz.
Tiroa pranko tira,
geientsuenak uts;
andrea sermolari,
ez gañera amuts.
Eskupeta xar ori
egiñ bear det auts!

12/ Gure damutasunak
ain dira axalak,
bai asmo pattalak,
aragizko bezela
gu ere argalak;
dauzkagun griña auek
eztira makalak,
berez juango dira,
ez jo egiñalak,
kenduko dizkigute
atxur eta palak.

13/ Orra zer gertatu zan
juan dan Urrillez,
pasa zaigun illez:
Opor-aldiak bota
uso batzuk illez.
Okelaz urritu naiz,
ugaritu illez,
ez nuan atsedengo,
baña nekez ill ez:
oiñez aña ibilli
naiz automobillez...

14/ Amabi jartzen asi
ta amalau jarri
neure parregarri;
bertsotan ezta ori
gertatu oi sarri.
Fama txarrik ez diot
iñori ezarri,
eiztariok, umorez
kantatu alkarri,
ta izan ditezela
denon alaigarri,
ta izan ditezela
denon alaigarri.

ARTZAIA ETA BASERRITARRA

Baserritarrak:

Bi bertsolari ementxe gaude
kanpotikan etorriak,
etxekoentzat txit ezagunak
baiña zuentzat berriak;
lan baterako dauzkagu biok
borondateak jarriak,
gu geran arte bizi ditezen
oitura maitagarriak.

Artzaiak:

Lan onetantxe alegin guziz
danok bear degu saia,
galdu ez dediñ euskera onen
lore gozozko usaia;
Jainkoa lagun, izango degu
bearreko degun gaia:
nola geran gu au baserritar
eta ni berriz artzaia.

Bas.: Zuk diozunez gure artean
bada zer esan ugari,
ezagun dezu nola zabiltzan
diru artean igari.
Artzairik ez da iñoiz ikusten
laiatzen edo segari,
baiña ondo jan, ereiñ ez arren
ez arto eta ez gari.

Artz.: Lan egiñ gabe ondo jateko
oso dago mundu txarra,
azkenik aurka lenago lagun
genduan baserritarra;
ez digu opa murko-almintz da
mendiko belar-zakarra,
oraindik bizi bagera ere
degu guzien bearra.

Bas.: Uste dedanez ez daukazute
gure laguntzen bearrik,
nola ederki asko konpontzen
zeraten zeuek bakarrik;
zazpigarrengo mandamentuaz
ez dezute kezka txarrik:
artzaiak diran lekuan ez da
alperrik galtzen belarrik.

Artz.: Uda guztian or bizi gera
mendietan baztartuta,
maduretako mokau goxuak
dauzkagu debekatuta;
baserritarrak ezer badauka
negurako sobratuta,
ura izango degu guretzat
baiña ondo pagatuta.

Bas.: Ondo patxaraz bizi zera zu,
bapo osatuta ardiz,
ariñ zabilta mendiak zear
batetik bestera zaldiz,
ez gu bezela lurra bustiaz
zure kopetako izardiz;
zu lo zaudela kukuak jo du
ia makiña bat aldiz.

Artz.: Orra gugana nekazariak
daukan ikusi eziña:
uste du gure bizitza dala
leun edo neke-ariña.
Noizko dituzu, ekaizte gogor,
negu beltz eta gordiña?
Mundu ontatik jua ziñan zu
artzaia izan baziña.

Bas.: Baztar batian mokautxo bat ta
apur bat beste zatian,
zure ardiak irabazian
dabiltz bien bitartian;
txistu, istillu, deadar eta
planta guziak batian,
baiña txakurrik ez bota iñor
begira ez dan artian.

Artz.: Oraindikan nik ez ditut esan
baserritarren berriak:
gure mendiak ondatu ditu
auen diru-egarriak.
Nun dira gure basoetako
aritz ta pago-gerriak?
Aizkorik izan ezpazenduan
obe zun Euskalerrriak!

Bas.: Kupirik gabe nastu didazu
barru-barruan nun miña:
Euskalerrria itxusitzea
guztiontzat da samiña;
piñudi illun, bekozko-beltz da
irripartsu zan jardiña,
zer ikusia askok daukagu
baiña ez danok berdiña.

Artz.: Nola dauzkaten barruti-saillak
piñuz jantzi ta itxiak,
baserritarrak orra utzi gu
lur jotzeraño jetxiak;
larritu gaitu ardi gaxoei
janik eziñ iritxiak,
agur oraintxe gure bordatxo,
txabol eta basetxiak!

Bas.: Baserritarrok saiatzen gera
gure ondasunen alde,
gure lekuan zuk zer egingo
zenuken nai dizut galde:
Euskalerrian badira noski
bear ainbeste artalde,
gure kontura nai al dituzu
mantendu danak debalde?

Artz.: Nola liteke aztuta bizi
artzaiaren ondasunak?
Mami goxua, arkume xamur,
eta gazta usaidunak...
Gauz oiek danak ez ote dira
gustatu oi zaizkizunak?
Galtzen badira nolatan bete
uzten dituzten utsunak?

Bas.: Gaztaña, sagar, arto ta gari
eta arrautza prexkuak,
esneko txekor guri-guri ta
baserriko ollaskuak,
sagardo bixiz busti ezkeru
dituzu ain gustokuak;
beteko'ituzte zure ardizar
eta zeziñen lekuak.

Artz.: Ikusten danez baserrietan
gauz eder pranko badira,
baiña geienak bestientzako,
erak zur utsak baitira;
onentxoenak juan oi dira
Billapranka'ko perira,
obe litzake erdiak beintzat
etxean jango balira.

Bas.: Mingaiñik eziñ errenditu du,
berritxukeriz ekinda,
nunbait emendik juan nai luke
al dun guzia eginda;
baiña ni ere eziñ ixildu
alkarren berri jakinda,
piakaitz utsa dalako dabill
andrerik artu ezinda.

Artz.: Alkarrentzako ttirriak utzi,
atoz bide zuzenera,
artzaiak eta baserritarrak
euskaldunak ez al gera?
Zeuk dakizunez bion artean
daukagu zutik euskera,
gure izkuntza ereriko da
sakabanatzen bagera.

Bas.: Negu latzean galdu ez dezan
elur otzaren pixuak,
baserriak ta txabolak ditu
guzizko babes goxuak;
izan gaitezen ondorengoan
ixpillu eta maixuak,
azken-arnasik eman ez dezan
gure euskera gaxuak!

Artz.: Gauz oni buruz senti dedana
esango det azken-bertsoz:
asko dirala euskera-alde
saiatzen diranak gogoz;
eta aldizka egonagatik
inguraturikan otsoz,
bertsolariak diran artean
ez dala galduko beingoz.

BASARRIRI,
BERE BERROGEI TA AMAR URTE
BETETZEAN

- 1/ Auxen da lana *Beti-Jai'tarrak*
oraiñ eman didatena:
denon partetik goretsi zazu
zuk Basarriren izena.
Baña jakiñik buruz argia
eta diña ez naizena,
Basarri, nola emango dizut
merezi dezun omena?
- 2/ Gazte-gazterik asia zera
gure plazetan kantari,
esan liteke jaio orduko
ziñala zu bertsolari,
baita oparo erantzun ere
Jaungoikoaren deiari;
baratz oberik ezin gertatu
orren azi mardulari.

3/ Lenago entzun izan genduan:
«Bertsolariak badira,
eta arkitu nai dituana
juan sagardotegira».
Gaur pitxi oiek irtenak dira
illunpetatik argira,
baña zuk jaso dituzulako
merezi duten tokira.

4/ Sekulan ere jokatu gabe
beste iñoren kaltera,
maitasun dana ixuri dezu
zeu jaio ziñan lurrera.
Ontan, Basarri, ardura aundiko
gizona izandu zera,
gu, euskaldunok, beti zugana
zorretan izango gera.

5/ Bertsoak bear dituzten lege,
neurri ta gañontzekotan
zuk emandako erakutsiak
jaso ditugu prankotan.
Maixu jakintsu eta leiala
bai izan zerala ortan,
zuri eskerrak amaika gaztek
ikasi dute bertsotan.

- 6/ Bertsolariak darabiltzkiten
doñurikan gozoenak
bildu dituzu or eta emen
izkutaturik zeudenak;
euskaldunontzat izanagatik
guztietan ederrenak,
arnas-berritu ezpazenitun
aztuak zeuden geienak.
- 7/ Euskal joko ta oituren buruz
emandako iritziak,
izparringi ta liburutako
bertso eta idatziak,
danak dituzu zuzentasunez
apaindu eta jantziak;
zer poza eman izandu digun
patxaraz irakurtziak!
- 8/ Ez nituzke nai gutxitzat artu
lengo bertsolari zarrak,
baña gazteak ere ez dira
aiei jarraitzen zabarrak;
aueatikan asko ta askok
zukan dituzte zuztarrak,
zu zeralako zuaitz sendoa
ta oiek zure adarrak.

- 9/ Berrogeitamar urte badira
mundura sortu ziñala,
ta nork goretsi Euskalerrira
zabaldu dezun itzala?
Zorioneko aur kuttun ura
goxatu zuan magala!
Maitetasunez zeru goitikan
Jaunak onetsi dezala!
- 10/ Danok dakigu oitura zarrak
zuk berpiztu dituzuna,
baña iñori miñ eman gabe,
or dago ikaskizuna,
Euskaldunontzat ixpillu izan
dediñ zure nortasuna,
Jaun zerukoak eman deizula
luzaroko osasuna.

AITA - SEMEAK

AITA EZJAKIÑA, ETA PROFESIONAL'EAN
DABILLEN SEMEA

Aitak: Gaur eguneko jokera auxe
ez uste danikan txantxa,
gazte jendiak bazeukak, mutill,
bera dan ainbeste tatxa;
baserritikan alde eginda
danak eskolara martxa,
errezetikan ezin litekek
iñola bururik altxa.

Semeak: Eskolarikan ez duna beti
izaten dala arlote
urtetan sartu zeratenok au
ondo ikusi dezute;
ezjakiñ utsak gerala danok
gure etsaiak diote,
orregatikan ainbeste burla
egiñ izan dizkigute.

Aitak: Obeki izan nairikan gogoz
eldu diok eskolari,
askok bezela bizkar emanaz
baserriko nekeari.
Entzun baso ta mendietako
jakinduria dunari:
eskola utsez etzegok ezer,
jarrai akiok lanari.

Sem.: Orain artean zer pasatu dan
gazteok ongi dakigu:
beste batzuek agintzeko ta
asto-lanean beti gu;
gizon jakitun eta argien
faltak au ekarri digu,
menpetasun au astindu zagun
ia garaia badegu.

Aitak: Egun illunik ez diat opa
nere ondorengoentzat,
zintzotasuna beti izan dek
onura gizonarentzat;
eskolarikan ez izan arren
ainbat sortu dek guretzat,
kristau-lege ta euskal oiturak
ez itzak baztartu beintzat.

Sem.: Euskalerrian gizon ospetsu
izan ziranak lenago
geientsuenak eskolatuak,
begien aurrean dago;
gure lur maite au nork jaso du
aietxek baño geiago?
Aurrez gertatu ziralako da,
ni beintzat orretan nago.

EMAZTEA MUXINDUTA...

- 1/ Ene andretxo, zurekikoa
egiten ezta samurra:
ain luze egiñ al zaizu gaurko
nere parranda laburra?
Lanerakuan alai agurtu,
etxeratzean mutturra,
gaur ere zerbait izango zala
banuan naiko bildurra.

- 2/ Egun guzian antxe jardun naiz
lantegian pintasunez,
nere famili maiteagatik
detan guzia emanetz;
baña ala ere ezta naikua
oraiñ ikusten dedanez,
nere nekeak ez dira ordaintzen
orren kopeta illunez.

- 3/ Goguan daukat oraindik ere
goizeko zure ertera,
esan didazu: «Illuntzan gero
txintxo etorri etxera.»
Gizonezkoak, egia, zerbait
askatasun-zale gera,
baña, andretxo, zerorri ere
matxarda samarra zera.
- 4/ Etxerakuan lagun batzuek
zaizkit bidean azaldu,
estimatuak nola ditudan
eziñ nolana bialdu.
Baña oraindik aiekgatikan
ez zenituzket nai saldu,
zure senarrak arnas artzeko
eskubiderik ez al du?
- 5/ Beñ eta berriz entzun zaidazu,
andretxo biotzekua,
zugana dedan maitetasuna
eztala axalekua.
Nere biotzaren ondoan dauka
zureak bere lekua,
gogor-itxurak egiñagatik
etzera orrelakua...

6/ Argi ondoren etorri naiz ta
arkitu zaitut illuna,
gauz utsagatik etzaitez mindu,
nere emazte kuttuna.
Nai dezu baña eziñ ukatu
asko maitatzen nazuna,
oraindik badet itxaropena
laster pasako zaizuna.

7/ Pakeak egin bear ditugu
andikan edo emendik,
alaitasunez bizi gaitean
al baldin bada iñundik.
Bizi guztian maiteko zaitut
parranda guzien gaindik,
une goxuak igarotzeko
gaude zu ta ni oraindik.

EUSKERA ETA ESKOLAK

- 1/ Orra gaur ere sortu bertsoak
paperetan jarri naia,
nunbait oraintxe iritxiko zan
orretarako garaia.
euskera eta eskolak, au da
aukeratu dedan gaia,
berari buruz zerbait esaten
nai nuke alegiñ saia.

- 2/ Gure umetxo maitagarriak
mundura datortzenian,
ongi-etorri euskerazkoaz
artzen dira geienian,
Euskalerriko amak dakiten
erarik goxoenian.
Ara euskera nun ereiten dan
baratzik samurrenien.

3/ Eta ondoan dauzkagun arte,
zerbait azi bitartian,
euskera zarra edaten dute
bularrarekin batian.
Larros politak landatu arren
aiñ itxaropen maitian,
geure eskutan zimeltzen dira
eskoletara astian.

4/ Eskolaratu eta biltzean
euskaldun ez diranekiñ
gure umeak aztutzen dira
len zekizkiten itzekiñ.
Zergatik utzi bear ditugu
izkuntza bakarrarekiñ
nekerik gabe gelditu bear
luteken aiek birekiñ?

5/ Iñork ez beza uste eskolak
gorrotatzen ditugula,
baizik gertatzen dana esan nai
izanik egi mardula.
Anai-arrebok, ez al dezute
pentsatu izan sekula
ikasi bear dan tokietan
euskera azten zaigula?

6/ Ez det esan nai kaltegarria
dala guretzat erdera,
au gabe ezin liteke oraiñ
bizimodurik atera.
Bere ondoan maitatu eta
gorde dezagun euskera,
bi izkuntz auek ez baitaukate
bizi eziñik batera.

7/ Sarri mintzatzen gera jakintza
edo kulturaren alde,
iñoizko garaiz ez bezela gaur
orren bearrean gaude.
Ez ote degu saiatu obe
itz egiñ utsaren orde
eta etxean ikasitako
ura eskoletan gorde?

8/ Nork esango du egiz jakintza
bearrikan ez duela?
Danak aurrera jun da atzean
geldituko da bestela.
Ez dezagula euskera galdu
errez gorde litekela,
baizikan zaindu jakintza orren
zati polit bat bezela.

9/ Umetxoetan baldin badago
euskeraren izatea,
ona litzake maixuak ere
pixka bat erakustea.
Ez al da bada tamalgarria,
mingarri eta trixtea
amarengandik ikasitako
itzak eskolan aztea?

10/ Lur egokian landaretxo bat
txukun landatuagatik,
igartuko da euri epelik
ezean zeruetatik.
Euskaldunikan ez datorkigu
gaur ume diranetatik,
euskerarentzat laguntasunik
ez bada eskoletatik.

11/ Ikasi gabe jakiñ naiean
alper-alperrikan gabiltz,
jardun bai baña ez egitetik
etortzen dira zenbat gaitz.
Esan nai nuke euskeraz geigo
egingo litzakela itz,
ikastetxetan apur bat izkuntz
au erakutsiko balitz.

12/ Emen azaltzen ditugun kezka
dira guraso batenak,
pixka bat lagun egiñ deiguten
borondatea dutenak.
Onetxek jartzen gaitu sarritan
geure onetik irtenak:
gu euskaldunak, eta umeak
euskeraz ez dakitenak.

TRATALARIA

(GERTATUA)

(Doña = «Frantzesaren idea...»)

1/ Usterik gutxiena
degun orduan
ditugu komeriak
geure onduan.
Nola asi ez kantari
baldin badet naiko ari
bear ainbat apaintzeko
zenbait tratalari?

2/ Baserritar batek du
bei zarra saldu,
tratalariak ez nai
dirurik galdu.
Astelena naiz-ta izan
au txit erne agiri zan,
xaguaren zai dagoan
katuaren gisan.

- 3/ Tratalariak zuan
ordua jarri:
«Zazpi t'ereditarako
beia ekarri!»
Bei-jabea bai goiz jaiki,
malezirik ez eduki;
tratalari maltzurra lo
kotxian ederki.
- 4/ Baserritarrak nai du
beia pixatu,
baña tratalaririk
eziñ esnatu.
Begi-itzal bai txapela,
baña zabal bat duela,
kabian lo-plantan dagon
erbiak bezela.
- 5/ Ark pentsatzen zuana:
Oraindik goiz dek,
beiak zimaurre ere
egiñ oi ditek.
Ori ez dît nik kaltean,
pillatxo bat egitean
zer ordaindu gutxiago
pixura juatean.

6/ Alakoren batean
 zerbaiten otsa,
 tratalariak laxter
 bota du lotsa:
 «Lorik gabe gau ta egun
 lan geiegi nola degun,
 adixkide, bei orixe
 pixatu dezagun».

7/ Abere izan arren,
 bere onean
 eziñ egon, laxter ill
 bear danean.
 Tripetatik arinduta,
 bat-batean gaztetuta,
 or zijoak bei zar ori
 soka puskatuta.

8/ Baserritarrak dio:
 «Egin du zorra, gisung
 orra bei zurrak sartu
 ziri legorra, uble uxoiak
 Lu egonda irabazi?
 Nori eman orain auzi?
 Obe zuan antok balu
 zima ur eta guzio»

- 9/ Beia or omen dabill
larrean lasai
eta tratalariak
oraingotik jai.
Eldu orain paotxari,
ez atz egiñ kaskarrari,
logureak jun zaizkio
tratalariari.
- 10/ Orra irabaziak
iges eskutik,
ori eziñ kendu du
bere burutik.
Orri gaizki iritzita
al zaude aiñ gaitzetsita?
Beia jua zaizu baña
propiña utzita.
- 11/ Baldiñ ezpadezu nai
guzia galdu,
daukazu aukerari
zaiozu eldu.
Zertan egon zapuztuta
zerbait beintzat utzi du ta?
Eraman baratzarako
kotxian artuta.

12/ Bere jabearentzat
lezio txarrak
ez ditu eman noski
gure bei zarrak.
Bete arbiz leporaño
bi leioak ixteraño,
maltzurak lo egin dezan
mozolotzeraño.

GURE BOLATOKIAK

- 1/ Iñoiz juanik denbora pasa
erriko bolatokira
zer atsegiña nabaitzen dedan
joku onixe begira!
Mundu onetan zergatik juan
poz ondoren urrutira?
Jolas paketsu patxarazkuak
onuragarri badira,
amaika grazi ixuri ditu
Jainkoak Euskalerrira.

- 2/ Oraindik bazter gozo askuak
badaude mundu onetan,
sinisten errez ez bada ere
bizi geran egunetan;
oietan ez da iskamillarik,
baizik pakea benetan;
au pentsatzen det murgildurikan
sarri nere barrunbetan
zorion bera babestu dala
gure bolalekuetan.

- 3/ Begira dauden guztiak alai,
nai dutenak trabesean,
iñortxo ere ez da ikusten
denborik eziñ pasean,
gogaipenarentzako lekurik
ez baita biotz asean.
Etxetik kanpo ibilli gabe
atsegiñen amesean
saiatu bertan oitura zarren
itzal eta babesean.
- 4/ Bola biribill ao zabala
ikusi or jostalari,
gure oituren maitale danak
alaitu nairik kantari,
bere doñuak poztu balitu
bezela brillak dantzari;
zenbat poztasun berezi sortzen
zaizkan emen biotzari,
sentimenturik duana bertan
biurtzen da ameslari.
- 5/ Esku-zulo dun bola bat eta
brillak berriz bederatzi,
auetatik al diranak bota
ta ezin diranak utzi;
abildadeak badauka emen
indarrak ainbat garrantzi,
begira nola ikuskizun bat
gauz gutxiz liteken jantzi,
ala ere txit jolas polita
dala diot nik iritzi.

- 6/ Bola-jokua ain da garbia,
ez du korapillo txarrik,
trebea danak motel tartetik
irtengo du bai bakarrik;
azpikeri ta tranpak ez dute
bolatokian indarrik,
ikusten al da ezin konpondu
ta eztabaida zakarrik?
Auzi gabeko lekuan berriz
ez da epaille bearrik.
- 7/ Lenengotikan eman ezean
kurpill edo egiera,
bolak aguro igestuko du
berak nai duan aldera,
bartzarrak joaz eziñ iritxi
iñola brilla artera.
Ondo pentsatzen jarri ezkerok
gizonok orlaxe gera:
Gaztetan gaizki ezi ezkerok
nola zuzendu zartzera?
- 8/ Bolari danak izkuntz bat dute
gozo, erru gabekua,
kondaira baño lenago Jaunak
guretzat sortutakua.
Apala beziñ maitagarria
ez al da bola-jokua?
Euskaldun danok zaletasunez
babestu bearrekua,
euskerak ere bolatokitan
baitauka gorde-lekua.

- 9/ Bolaritzaren geroa ez da
agertzen guztiz illuna,
zorionean gazteak ere
badute zaletasuna,
esan liteke beteko dala
bolari zarren utsuna.
Auxe da gauz bat bene-benetan
poza ematen diguna:
Euskalerrian oitura batek
badula etorkizuna.
- 10/ Nabarmena da gidari jator
eta zuzenak daudela,
bola-jokua orren indartsu
etzan egongo bestela.
Bolariok, bai, alkartasuna
gogozkoa dezutela,
gure oituren mesederako
jarrai zazute onela,
artzaiak eta artaldeak bat
egiten duten bezela.
- 11/ Bolatokitik bolatokira
sarritan zabiltzatenak,
zuek zerate Euskalerriko
semerikan zintzoenak,
gure izkuntza eta oituren
zaindaririk leialenak,
ospe aundiko kirolarien
arteko etzeratenak,
baña euskaldun danon gorantzak
merezi dituzutenak.

12/ Adiskide ta lagun maiteok,
Legazpi'ko bolariak,
nere bertsozko erantzun ura
au du zuen eskariak,
Nere almenak nola ez diran
bear beziñ ugariak,
barkatu irten ez badidate
apaiñ edo dotoriak,
beti nai duan dana ez baitu
egiten bertsolariak.

EZTARIAK MENDARTE'N

- 1/ Oraindik egun gutxi dirala
izana naiz eztaietan,
gazte denbora igaro nuan
paraje zar alaietan,
nere biotza pozez asetzen
zuten iturri aietan.
Zeñen gozoki atsedean duan
ango baso-zelaietan!

- 2/ Tontor batean kokaturikan
antxe zegoan Segura,
oñetan mardul, bikaiñ, eder uts
zuala bere madura.
Zoramen artan auxe etorri
zitzaidan neri burura:
zerura sartu ezpanaiz ere
eldu naiz paradisura.

- 3/ Eztai aietan zan seguratar
neska gazte taldetxua,
begiz jo bear nai eta ez, bat
ezpaldinbazan itxua.
Apaiñ jantziak, polit, alaiak;
ura lore-sortatxua!
Itz neurtuetan erabiltzeko
ez ote zan edertxua?
- 4/ Begira eziñ asperturikan
an nengon aldamenean,
alako poza banatzen zuten
ingurumari danean.
Baña aingeru aien abotsa
iritxi zitzaidanean,
nere biotzak ura taupada
egin zidan barrenean!
- 5/ Jainko maitea! Zer iritxi da
orain nere belarrira?
Or goiko grazi danak al datoz
gaur nere lengo kabira?
Ixo, zeru, lur, baso ta zelai,
lore, eguzki. Begira:
Ai, zeñen neskatx zoragarriak!
Euskeraz mintzatzen dira!

6/ Sinistu ezin ta anka-punttan
zerbait urreratu nintzan,
urretxindor bat uxatzerikan
nai ez lukenaren gisan.
Bai, ainbat maite degun euskera
jostatzen antxe ari zan,
aingeru aiek beste izkuntzik
ez zezatekien izan.

7/ Soñu-joleak euskal doñuak
eskeintzean dantzagarri,
zuetatikan iñork etzuan
arpegi illunik jarri;
baizik ariñ ta txukun dantzatu
gure biotzen pozgarri,
an ezagun zan ola jolastu
izan zeratela sarri.

8/ Segurar neskatx auek ez ditu
ondata moda berriak,
ondo dakite noraño diran
apaindurien neurriak.
Biarko ama jatorrak dauzka
emen gure jatorriak,
Segura zero biurtzen duten
aingeru zoragarriak.

- 9/ Neskatz maiteok, neri atsegiñ
bai eman didazutela,
pozez beterik utzi nazute
asko ez dakizutela.
Sinistu gero bi aldiz grazi
geiago dauzkatzutela
zuen euskera zoragarria
ezpañetan dezutela.
- 10/ Zorionean etorri naiz gaur
lengo kabi biguñera,
amaika bider erori naiz ni
emen ixill eziñera;
bertsoak xamur igotzen zaizkit
biotzetik mingañera,
Mendarte, arras txoratu nazu
oraintxe lenaz gañera.
- 11/ Unetxo batez bederik or ni
bete zoriontasunez,
alderdi onek nere anima
ase du baretasunez.
Ni nun alaitu oinbesteraño
pake-abotsa entzunez?
Bakar-bakarrik zure onduan,
munduan beste iñun ez.

- 12/ Zure inguru auei begira
ez naiz beiñere nekatzen,
ai, zenbait bider ni amesetan
naizen zutzaz gogoratzen!
Etzaitezela arritu ainbat
baldin bazaitut maitatzen,
nor bere kabi artan bezela
ezpaita iñun goxatzen.
- 13/ Segura'tikan Zeraiñ'a dagon
bideko gaintxo batean
ortxe zaude zu, apal jaikia
paraje pakez betean;
txuri ta alai agiri zera
baso berdien tartean,
Gipuzkoa'ko Goierriaren
biotz mardul politean.
- 14/ Zure zaindari kementsuak or
Aitzkorri eta Txindoki,
eguzki berak laztantzen zaitu
oparo eta gozoki.
Baso ta lorez inguratua
ikusten zaitut egoki,
pakeak sortzen ditun atsegiñ
gozo guztien biltoki.

15/ Ara, sor-leku maitagarria,
begira nola naukazun,
nere biotza zure saretan
arturik or nun daukazun;
lendabiziko argi alaia
zuk erakutsi zidazun,
arrazkeroztik zenbat atsegiñ
eman izan dizkidazun!

BERTSO-TXAPELKETA

(1965'garrengo Urteberri egunean)

1/ Danok dakigu urteberritan
bertso-txapelketa zana,
berari buruz esan nai nuke
antxen ikusi nuana;
neroni beintzat etzait damutu
Donostia'ra juana,
itz neurtuetan dana agertzen
badaukat naikoa lana.

2/ Zeñen biotza etzan poztuko
Anoeta'n ikustean
emakumiak bertso entzuten
gizonezkoen tartean?
Neska gaztetxo batek au zion
ainbat txalo entzutean:
Euskerik ezta galduko noski
bertsoak diran artean.

- 3/ Euskalerria bertso-zalea
beti izandu da lendik,
zorionean zaletasun au
ezta aldendu gugandik;
ikusi degu zer maite degun
berrikeri danen gaindik,
gure artean oitura zarrak
maitatzen dira oraindik.
- 4/ Egun artantxe entzun nituan
bertso gozo ta sakonak,
bai jostalari t'alaiak ere
baña guztiak txit onak.
Txoraturikan ao zabalik
emakume ta gizonak,
noski alatsu egongo ziran
gure aurreko aitonak.
- 5/ Entzuten degu gure izkuntzak
laguntza bear duala,
beraren alde saiatzen danok
asko zabartu gerala.
Esango nuke lan bakarrakin
bi egin litezkeala:
bertsolaritza zaindu ezkeru
euskeru biziko dala.

6/ Batzuek iñoiz esanagatik:
«Lengo kontuak juan zian
eta euskerak eztu iraungo
oso denbora luzian.»
Orrelakorik etzirudian,
ez, urteberri-goizian,
begira zenbat jende bildu zan
bertsoak entzun pozian.

7/ Gure izkuntzak izan lezake
galdutzeko arrixkua,
ain zarra da ta alde batera
au ezta arritzekua;
baña abe bat badu sendoa
Jainkuak jarritakua:
besterik gabe zutik eusteko
bertsoak dira naikua.

8/ Euskalerrriak bere muiñari
au maitasuna azaldu!
Bear danean nabarmentzen da,
ezta oraindikan auldu;
bertsoen epeltasun goxora
ikusi nola dan bildu,
bere oiturak maite dituan
erri bat nolatan galdu?

- 9/ Jakin bezate bertsolarien
alde saiatzen diranak,
alperrikakoak ez dirala
egiten dituzten lanak.
Zer laguntasun obeagorik
gure izkuntza laztanak?
Eskerrez bete-beteak daude
euskaldunen biotz danak.
- 10/ Lazkao Txiki: Txoraturikan
egon naiz zuri entzuten,
zure grazi ta trebetasunak
guztiok gaitu arritzen.
Ala bear da saio gogorra
egiñ-erazi zizuten,
jo zizkitzuten txalo guziak
ondo merezi ziñutzen.
- 11/ Ai, Uztapide, entzun dizkitzut
ainbeste bertso biribill,
zerbait esan nai nizuke baña
eziñ asmatu rik nabill:
beti bezela azaldu ziñan
ain kementsu ta ain umill,
jatortasuna agertzen ezta
edozein zu beziñ abill...

12/ Zure bertsoak artu ditugu
loreak intza bezela,
ondo dakigu berebiziko
gozotasuna dutela;
eta sinistu euskaldun danok
otoitz batean gaudela,
urte askotan osasunakin
gorde dezazun txapela.

13/ Gañontzekoak ez uste gero
zuetzaz naizela aztu,
nai izan arren eziñ zaituztet
danok bertsoetan sartu.
Orregatikan, lagun maiteok,
arren, ez gaizkitzat artu,
nere biotzak ez baidezake
bertsolaririk baztartu.

SARRERA NAI

- 1/ Urteberri-egunez
Donosti aldera
emaztea ta biok
juateko gera.
Txapelketa dagola
degu aditzera,
besterik gabe goaz
bera ikustera
eta entzutera,
bertsoz asetzeraz;
ez goaz uztera
orlako aukera,
baña orretarako
falta sarrera.

2/ Andreak jakitean
juan nai dedala,
laguntzeko gertatu
zait bereala.
Badaki aurrekoan
sarrerik etzala,
eta esan dit: «Oraiñ
saia egiñala!»
Goguan duala,
neuk esan nuala
sartuko giñala
nola edo ala,
bitarteko arturik
Aita Zabala.

3/ Bi sarrera iritxi
au da nai nukena,
baña orretarako
nun det almena?
Mesede-eske nator,
jauna, bedorrena,
barkatuko didala
det itxaropena.
Gertatu leikena,
eskatzen detena
lanikan zallena,
ezin dezakena.
Orrela baldin bada
ez artu pena.

4/ Sarrera-kezka ori
nai nuke nik kendu,
orregatik bertsoak
dizkat zuzendu,
Aita Zabala bedi,
arren, alegindu,
al baldin badu beintzat
bideak berdindu,
baztarrak astindu.
Olea'k ezin du.
Eta noiz ordaindu?
Bedorrek agindu
nere poltsaren karga
nola arindu.

5/ Aita Zabala, orra
nere eskutitza,
bertso zale geranok
larri gabilta.
Anoeta'n sartzeko
falta degu giltza,
bi sarreraren eske
egin diot mintza.
Inguratu bitza
ori al balitza,
baña bada gaitza
orlako langintza,
ez det gaizki artuko,
or eman itza.

(8/12/64)

NAI TA EZIÑ...

- 1/ Bertsoz esan nai nuke
nere gertaera,
ondo suerte txarreko
umeak gera!
Beiñ izan det bertsoak
entzuteko era:
iñork esku-eskuan
jarrita sarrera,
kotxian juanera
eta etorrera,
berdiñ bazkaltzera,
guzia naiera;
danak utzita gaxo
juan naiz oera.

2/ Esango det iñork nai
baldin badu jakiñ
egun artan nengola
kallenturakiñ
ogei ta emeretzi
gradu ta erdikiñ,
erotzeko zorian
buruko miñakiñ,
mingain lodiakiñ,
ao zikiñakiñ,
bizar luzeakiñ,
begi larriakiñ...
Nora juango nintzan
planta arekiñ?

3/ Asmo sendo-sendo bat
daukat biotzian;
urrengo txapelketa
antolatzen
ez naizela izango
bestien atzian
ardi errendutako
motelen antzian;
zerbait moldatzen
da nik sumatzen,
naiz izan Prantzen
edo eskaatzen,
besteik ezian an naiz
anbulantzen!

HACHE TA ERDELKERIAK ZERTARAKO?

1/ Bertso berriak jarri nai ditut
al baldin badet euskeraz,
gure aurreko asabetatik
ikasitako izkeraz;
orretarako oso ederki
osatzen naute aukeraz,
orain aldiko zenbait idazlek
artua duten jokeraz.

2/ Euskera-antzik ez duten itzak,
zirriztu guzitan *hache*,
barkatu baña nere ustetan
oker xamar daude ortxe.
Ez ote dira premirik gabe
sartu zailtasun ontantxe?
Sasiko-izki deabru onek
salmenta dauka oraintxe!

3/ Izkuntza batek ez du mesede
emen dabillen trillua,
gaur eguneko idatzietan
degu orren ispillua;
bakoitzak bere aldera tira,
au da berriz istillua!
Baña euskera ez da zenbaitek
uste bezin mordollua.

4/ Euskeraz garbi idazte onek
bai ote du ainbat neke?
Artara jarri ezkerori
errez iritxi liteke.
Premirik gabe zertan ibilli
atzerrietan itz-eske?
Kanpora billa jua gaberik
bertan arkitu litezke.

5/ Euskera zarra gaxorik dago,
indarrik artu ezin du,
aurrean dauzkan aldapa oiek
bear zaizkio berdindu;
ez dakizkigun itzak ikasten
saiatu ta alegindu,
izkuntza baten garbitasuna
ez nolanaitan zikindu.

6/ Orain aldiko euskal zaleak
egin dute lan ederrik,
oien eskutik juanda ez degu
artuko bide okerrik.
Nun degu gure gizatasuna
ez emateko eskerrik?
ainbat neke ta buru-auste latz
galtzen uzteko alperrik?

7/ Ez ote geran geure izkuntza
garbi gordetzeko trebe
gogoratzeak, ematen dizkit
makiña bat atsekabe.
Itzikan asko badegu bertan
iñundik ekarri gabe,
euskera zarra ez al da bada
bere buruaren jabe?

8/ Itzak badira noski or-emen
billatu bearrekoak,
gauz berri asko izendatzeko
egoki ta premizkoak;
izkuntz zar batek kaltegarritzat
ez ditu orrelakoak,
baña besteei utzi pakean,
oiek ditugu naikoak.

- 9/ Izkuntz-zaindiak ikusten dira
nola an da ala emen,
erakusteko badute noski
edozeiñek ainbat almen,
idazle danak beren ondoren
jarraitzen dute nabarmen.
Gu euskaldunok ez ote degu
ortarako ainbat kemen?
- 10/ Idatzietan gure iritzi
euskeraz eman dezagun,
geure itzetan arkitzen baita
bear ainbat argitasun.
Orretarako beste izkuntzak
zergatikan artu lagun?
Nere ustetan euskerak badu
ainbeste aberastasun.
- 11/ Izkuntza-zaindi danak zabaldu
oi dituzte iztegiak,
zalantz alditan leial argitzen
dizkigutenak begiak;
euskal idazle maiteok, arren,
zuek ez izan nagiak,
euskerara nastu lezake gero
lasaikeri geiegiak.

12/ Izkuntzalari agurgarriok,
zaidazutela barkatu,
iñor mindu nai ez duan arek
ez du egiten pekatu.
Mesedetxo bat nai nizuteke
apaltasunez eskatu:
Hache nun sartu asma eziñik
ez gaitzatzute nekatu.

BI GAZTE
ANTZERKI BATEN BUKAERAN
(1963-III-19)

— Zeñen alai ta pozgarri dagon
gure Brinkola baztarra!
Euskera zarrak indartsu dauka
alde ontako adarra,
eta luixtarrak premizko degu
laguntasunen indarra;
eskerrak emen zaudeten danoi,
bagendun zuen bearra.

— Beste ainbeste esan nai nuan
ta au sartu zait aurrera;
berdintsu dio, gu saill batean
lana egiñak baigera.
Senti dedana azalduko det
orain gutxi gora bera:
ixtimatzeko dala zuen gaur
arratsaldeko arrera.

— Au komeria, lagun, sarritan
gertatzen dana gurekiñ,
uste dedanez gaur ere zaude
kezka txikiren batekiñ.
Beraz zedorrek nai al zenduan
lenengo kantuan ekiñ?
Orregatikan etzaite jarri
ain kopet illunarekiñ.

— Zergatik larri zegoan au gaur
esango det nik bertatik:
lana bukatu nai zuan azkar
alde egiteagatik,
besterik gabe izkutatzeko
gure txoko onetatik,
dudarik gabe Brinkola'k ainbat
tiratzen du au Oñati'k.

— Geure parteak egongo gera
gaurko ontan aditzeko,
nere lagunak eztauka nunbait
bere txokoa saltzeko.
Ez al zera zu bada naikoa
emengo neskak zaintzeko?
Bakarrik bildur baldin bazera
prestu nago laguntzeko.

— Dударик gabe badago emen
neretzat aña aukera,
bati zertxobait esan nai baña
eziñ arrapatu era.
Nere partetik mandatuakiñ
arena juango al zera?
Egun bat ona emango dizut
baldiñ ezkontzen bagera.

— Aspaldi ontan badakit nola
daukazun bat begiz jota,
baña bidean topatze'ituzu
zenbait sasi eta ota;
nai zendukena, zer gerta ere,
da ni aurretikan bota,
orren olloa baldin bazera
neuk jarriko dizut kota.

— Mundu ontako poza askotan
izan oi degu laburra,
lokarri meaz lotutakua
eta etetzen samurra;
biar ixilik gelditu leike
gaur zaunkaz dagon zakurra;
esan nai nuke goi xamarrian
dabilkizula kukurra.

— Zerbait nai eta eziñ iritxi
badabilkizu naiko lan,
esan zaidazu zure sasoiari
penagarria ez al dan;
prueba egin zazu kanpoan
ezin badezu Brinkolan,
aizki aldrebasa etzaude eta
izango da nun edo an.

— Andregai billa asi nintzan ni
pintasunez eta bero,
baña ezkontzak zer arrixkuak
ondo pentsatu ezkerok!
Atzera edo aurrera laster
zoatz zu bai onuzkerok,
ta nik zer egiñ pentsatuko det
zurea ikusi ta gero.

— Au arratsalde ederra zuen
laguntza zala bitarte,
euskera-saio goxo onetan
danok daukazute parte.
Aurrera ere ez gera izango
zuengandikan aparte,
agur guziori, gau on bat pasa
eta urrengora arte.

— Gure euskera Brinkola'n galdu?
Ez izan orren usterik,
emen eztago bere maitale
ez dan zar edo gazterik.
Zuen arrera eztago berriz
eskertu gabe uzterik,
eskerrikasko danoi biotzez
nik ezpaitaukat besterik.

AITA SANTUAREN ITZAK

- 1/ Aita Santuak, ikusirikan
errien arteko drixka,
gizadiari dei maitakor da
estuak egiten dizka.
Artzai on orri biotz-animak
ainbat minberatu zaizka,
mami gozozko enziklikarik
zuzentzen digu aldizka,
azkenekoan ere etzaigu
mintzatu noski erdizka.

- 2/ Argi ta garbi egiten digu
munduaren agerpena:
leku askotan nagusiturik
dagola atzerapena.
Gizonetatik aldendu nairik
ainbat mixeri ta pena,
estu eskatzen digu pizteko
errien aurrerapena;
Aita Santuak ontan jartzen du
geroko itxaropena.

- 3/ Azpiraturik dagon erriak
al du ezertan federik
ondasun danak bestek badauzka
bere aldetik gorderik?
Ez du ikusko zalapartaren
indarra beste biderik.
Gizon artean ez bada ere
iñoiz faltako alderik,
ez dago emen bearkizunik
gabeko eskubiderik.
- 4/ Mundu au gizon guzientzako
Jaunak egiña izanik,
ez uste izan daukagun dana
gurea bakarrik danik,
eman zizkigun agindu aiek
modan pasatu ziranik,
zuzentasuna banatu lana
bear dunari emanik,
jaiotakoei ukatu gabe
bizi izateko janik.
- 5/ Besteren gaitzak iñori ere
ez digu ematen miñik,
eta ez degu iñork entzun nai
beartsuaren zotiñik.
Zorionaren ondoren danok
ero batzuek egiñik,
baña biotzak iñola eziñ
beregandu atsegiñik
indar guziak galdu ezkerro
alkar zapaldu eziñik.

6/ Irutatik bi goseak daude,
gaxoak edo makiak;
bakar batzuen esku munduko
ondasun eta jakiak;
kezkarik gabe artuaz beren
aldeko erabakiak
auentzat ez da arrazoirikan,
baizik danak aitzakiak;
orrelakorik ez du galduko
projimoaren plakiak.

7/ Danok nai degu ezin-bizia
gure ondotik aldendu,
bear dan gisan eta egoki
familiaritxo bat sostendu,
eskubiderik indar geiagorik
ez dezaigutela kendu,
geiago jakin, geiago izan,
aurreratu, albagendu;
baña zenbaiten buruan ori
bear dala nork sartzen du?

8/ Guk orain ere uste osoa
atsegiñetan jarria,
naiz-ta orretzek sarri ekarri
mundu ontara arria.
Jaungoikoaren abotsa gerta
ez dediñ bildurgarria,
entzun arretaz Aita Santuak
egindako dei larria;
gure buruak geuk ondatzea
litzake penagarria.

- 9/ Zoritxarrean au da askotan
gogoratzen etzaiguna:
Jesukristoren ordezkaria
dala itz egin diguna,
guri zer egiñ erakusteko
lurrean jarri ziguna,
uts egiteko arrixku gabe
agindu dezaiguna;
or Espiritu Santu beraren
egada-xuxmur biguna.
- 10/ Etzaigu esan daukagun dana
besteei banatutzeko,
baizik gañezka degunarekiñ
bizi-bideak sortzeko,
ondasunik ez dutenak gure
lujoz ez minberatzeko,
diru-indarrez arrotu eta
gerekoi ez biurtzeko,
oraindik garai degula eta
pake santua jartzeko.
- 11/ Gizadiaren alde zuzendu
ditzagun gure ekintzak,
Erroma'tikan banatu dira
bakoitzarentzat langintzak;
ogiak berak ainbat mesede
egin lezake jakintzak;
al daneraño bete ezker
guk errukizko egintzak
mundu legor au gozatuko du
goi-maitasunezko intzak.

12/ Egi-egizko goi-maitasunez
osaturikan dagonak
maiteko ditu bere burua
bezela beste gizonak,
asmatuko du mundu gaxoak
zer ditun sendagai onak,
kupirik gabe ezarri ere
berari dagozkionak.
Or sartzen dira enziklikaren
egi mardul ta sakonak.

GONA MOTXAK

(MINIFALDAK)

1/ Nai eta nai ez bertso berriak
nago jarri bearrian,
ikusirikan moda berri bat
datorrela indarrian;
gaurko neskatxen gonak ez dute
errenditu nai neurrian,
beste ainbeste ez det ikusi
nere begien aurrian.

2/ Orain aldiain ainbat komeri
munduan noiz dira sortu?
Izan liteke, baña ni beintzat
ez naiz gaur arte oartu;
soñekorik ez opatzeraño
dira neskatx auek zurtu,
edo bestela zimurtu gabe
zaizkie gonak kixkurtu.

3/ Belaun-koskorrez goitik lau-bost bat
beatz gutxi gorabera
gonentzat naiko neurria ere
bada au alde batera;
eta barrenak lixtu bildurrik
nola ez duten bestera,
oiek jantzita jua ditezke
arbi-ostoa biltzera.

4/ Ikusi nola gauden guztiok
erreztasunei emanik,
orain neskatzak gona-barrenak
jasotzen ez dute lanik.
Eziñ liteke esan intzetan
asko bustiko diranik;
ez nuan uste gora egiten
orren gauz erreza zanik.

5/ Entzun izan det moda berriak
beti ez dirala kalte,
gona motz auek ere gauz pranko
erakutsi dizkigute:
arrote samar giñan geienok
jakintsu egin gaituzte,
ainbeste zanko oker zanikan
nork zekian oraiñ arte?

- 6/ Estalgarrien neurriak nola
jetxi zaizkigun erdira,
batere uste ez genduala
ase gure ikusmira.
Utsa litzake zanko guziak
itxurazkoak balira,
ez naute berriz arrapatuko
diximuloan begira.
- 7/ Nunbait ez dute kezkek akatsak
ere argitaratzeko,
gerorako zai egon gaberik
guri aukerak jartzeko;
erreztasunak badaude oraiñ
erabakiak artzeko,
au da jendia sortu zaiguna
itxuak argitutzeko.
- 8/ Gona motz oiek jantzi baño len
ez al dezute ikusten
exeritzean komeri txarrak
nola neurririk ez duten?
Kontsejutxo bat lotsa geiegi
eraman ez dezazuten:
ez tire egiñ beste zati bat
kendu ez dezaiezuten.

- 9/ Okerrak ere etorri bear
zaizkigu moda onekiñ,
guziak ezin litezke bizi
lenago ta oraiñ berdiñ.
Gaurko neskatxak estaltzen dira
atzoko erdi gauzekiñ,
eun-egille ta saltzalleak
ia ez dute zerregiñ.
- 10/ Fama txarrikan ez nioke nai
eman moda berriari,
onurak ere aitortu bear
zaizkio dituanari.
Eziñ ukatu azkarra danik
au asmatu duanari:
gonak jasotzen zituan lanak
kendu dizka aizeari.
- 11/ Moda berriak ezin berdindu
aldrebes eta tajuzko,
ala ere noiz azaldu dira
oraiñ ainbat belaun-kasko?
Ikusiaren ondorenian
nik au egiten det juzko:
politak oso gutxi dirala
eta itxusiak asko.

12/ Au derizkiot oraingo neskatx
asko ikusitakuan:
gonen neurriak ondo zeudela
lenago zeuden lekuan;
itxusten ari dira edertzen
ari diradelakuan,
zenbait gauz zatar gonak orrela
geiegi jasotakuan!

LOIOLA-IRRATIKO
BERTSO-TXAPELKETA

1/ Atzo Loiola'n bi bertsolarik
jokatu zuten txapela,
eta sinistu bi oien lana
neurtzen egona naizela;
jakiñik berriz nere botoa
eman bearra detela,
emen dijoa kontzientziak
agintzen didan bezela.

2/ Pixaturikan bakoitzarentzat
an jarri zituzten lanak,
rima ta neurri eta gaiari
buruz esandako danak,
izkera eta piper eta gatz
saill ontan bear diranak,
bertso bezela alde aundirik
etzuten entzun ziranak.

3/ Ala ta guziz esango nuke
apurtxo bat bazegola,
eta badakit epaia zuzen
eman bearra dagola,
bati berea eman ezean
kalte egiten zaiola;
orregatikan aukeratzen det
oraingoan Azarola.

4/ Boto onekiñ nik ez nuke nai
gaur Arregi abakatu,
trebetasunik asko badula
ezin liteke ukatu.
Bere aldera jo dezutenok
zaidazutela barkatu,
geure ustetan nola oi degun
guztiok zuzen jokatu.

EUTSI FAMILIARI!

1/ Uste gabeko galdera pranko
umeak dute egiten,
ta zoritxarrez guraso askok
ez dakigu erantzuten.
Guztiontzako onuragarri
da-ta saiatu ikasten,
jakin dezagun gurasotasun
eta itzalari eusten.

2/ Ez gaitezela munduan bizi
ajolagabe ta ero,
ezkondu giñan eta ai zenbait
bearkizun arrazkero!
Zer datorkigu gure famili
santuak galdu ezkerro?
Txorikumeak nork eskuratu
kabitik irten da gero?

3/ Askotan uste izaten degu
guzia badakigula,
zenbait gauzatan zer ikasirik
geiago ez daukagula;
baña umeak galdez asteen
amar milla matrikula...
esango nuke jakinduritik
askotxo palta zaigula.

4/ Arrixkoz betetako garaia
izanik gaztearua,
grña txarretan murgildurikan
galdu leike aingerua.
Familia da gizadiaren
abe ta iturburua;
gorde dezagun ekaitzetatik,
ez dezala jo zorua!

5/ Seme-alabak bear bezela
ditzagun azi ta ezi,
saia ezkerro Jainkoagandik
izango da ainbat grazi,
geure aldetik zerbait jarriaz
bear oiek irabazi;
famili kuttun maitagarriak
ez al du dana merezi?

SASI-EIZTARIA

- 1/ Amaika giza-tipo xeble
badago gaurko munduan,
baiña guziak attalak dira
eiztariaren onduan;
beti nun zerbait arrapatuko
gose danaren moduan,
udazkenean beintzat ez daki
ondo zer egiten duan.

- 2/ Eiztariaren zentzunak dira
iñolaz ere ariñak,
egia dala dudik ez izan,
egiñ ondo esamiñak:
moxorrokeriz beteak daude,
tabernan bai gizon piñak,
egoaizea naiko botika
sendatzeko bere miñak.

- 3/ Eiz-usaia suma ezkeru
azkar igestu lanetik,
aitzakiren bat asmatuko du
atzetik edo aurretik;
atzo logure izanagatik
gaur bai goiz jaiki oetik,
dagona zegon gisan utzita
aide mendira etxetik!
- 4/ Eta mendian izkutaturik
iñork ez dakin lekuan,
begiak erne, belarri-tente
ezer sumatutakuan;
legeari bai bildur pixka bat
—dokumentuak kolkuan—
jai izan arren askotan meza
apaizaren poltxikuan...
- 5/ Izkutatuta dagon gizona
ikusten ez da erreza,
batek bota ta bestiak jaso
ez berriz ain gauz nekeza;
zenbaitek ez du kalte izaten
egoaizerikan eza,
dakarkin eiza zeinek il duen
bakoitzak pentsatu beza...

6/ Sasi-eiztari onek ez dauka
begietako makarrik,
pixtien gisa, lagunik gabe,
sarritan dabill bakarrik;
berekin duan albazorrua
ez du ekarri alperrik,
zimurrak ondo kenduko dizka
iñun badago sagarrik.

7/ Baso illunak maitatzen ditu
zelai ta gallurrak aiña,
sagarrik ez dan urtean txarra
izaten al da gaztaiña?
Garai onari ederki asko
artuko dio tamaiña:
eiz-otsean mendiratu ta
lapurretan alajaiña!

8/ Era onetan datorrenian
gure gizona menditik
etxean ez da sartuko noski
aurrekaldeko atetik;
baiña gerrian baldin badauka
zerbait zinzilik kakotik,
erakutsiaz pasatuko da
plazaren erdi-erditik.

MAIORAZKOAK ETA NESKATXAK

- 1/ Jartzen bagera baserritako
maiorazkoei begira,
naiko naigabe ikusko degu
juan gabe urrutira;
andre gazterik iñola eziñ
inguratu baserrira,
lenaz gañera ekaitzik asko
badator Euskalerrira!

- 2/ Gure neskatzak galdu dutela
baserri-zaletasuna,
auxe da gauz bat gaur egunean
sarri entzuten deguna;
arrazoi orri nai badiogu
eman bere erantzuna,
nola liteken jakitea da
lenengo eginkizuna.

- 3/ Baserrietan egonagatik
ainbat maiorazko gazte,
emakumeak jokatu nai ez
bere buruaren kalte;
erreztasunik ez baserrian,
lanean jai eta aste,
gure neskatxak oiek guziak
aurrez ikusten dituzte.
- 4/ Ziur dakigu lana degula
ondasunen iturria,
baiña beste gauz guzien gisan
bear du bere neurria;
aurrerapenik ez dan lekuan
beti lantegi urria,
au da baserri guziak galdu
bear ditun izurria!
- 5/ Familiaren buru-bidea,
gaiñera soroko lanak,
zenbat arrasta egin bearra
izan zuan gure amak!
Kontu oietxek dira neskatxak
ateratzen dituanak,
ondo pentsatzen jarri ezkerro
arrazoiz beteak danak

6/ Alperrikako lan da oiturak
baserritikan aldendu,
orretarako tresnak badira
ta bizikera bigundu.
Emakumeak kabi goxo bat
maiz amets egiñ izan du,
lore berriak landatzekotan
loretegiak txukundu!

7/ Orain-aldian ikusten diran
zenbait lantegi errezi
begiratuta, ikasbidea
or dago geu nola ezi:
gaur kaletarrak dituzten ainbat
sukalde-tresna berezi
baserritako etxekoandreak
ez al dituzte merezi?

8/ Etxe-inguru apaiñak eta
sukaldean naiko ura,
ogeigarrengo gizaldi onek
eskatzen digun modura;
baserri zarrei eman ezkerro
kabi goxoen itxura,
andre polit bat ez ote zaigu
etorriko ingurura?

9/ Beti besoak baiño lenago
nekatu gure buruak,
erreztasunik ez izanean
zer balio du diruak?
Kendu andreaki kanpo-lan astun,
neke, otz eta beruak!
Ori eskatzen digu ainbeste
maite degun aingeruak.

10/ Emakumeak ez dagokion
lan pixurik ez baluke,
baserrietan bizi nai-ezik
ez dula esango nuke;
eginkizuntzat ori artuta
jokatuko bagenduke,
zenbat irripar goxo etxean
leialtasun orren truke!

XEGUNDO GALARZA'RI

- 1/ Bertso batzuek eskeñi nairik
naukak, Xegundo Galarza,
lagun batekiñ au gertatzea
ez dek arritzeko gauza;
baña batzutan nai degun dana
esaten ain dek nekeza,
ai, ik musika jotzea beziñ
errez egiñ al baneza!

- 2/ Lengo batian Segura'tikan
eman ziaten albista:
larunbat gabez aztu gaberik
ikusteko telebista.
Motell, poztu nauk, naiz-ta irudiz
egiñ ik oraiñ bixita.
Nola ez bada umetan nuan
lagunik onena aiz ta?

3/ I Segura'ko seme jatorra
ta ni jaioa Mendarte'n,
badakik nola ibilli giñan
biok eskola ikasten;
gu mutikotan giñan añako
lagun gutxi dek izaten,
baña geroztik ez gaituk nik nai
bezin sarritan ikusten.

4/ Ikusirikan musikan oso
goi-goiko mallan agola,
nere poz auxe azaldu nai dît
baña etzekiat nola.
Ire doñuak alaitzen ditek
Segura lengo kaiola,
ta entzutean irudi zaidak
oraindik antxe nagola.

5/ Gazte-gaztetan joana intzan
or Estoril'en aurrera,
gizon bizkorra atera aiz bai,
ez ukan jo okerrera;
baña noizik-bein etorri adi
lengo paraje zarrera,
lagun zar danak maitatzen auten
eure txoko ederrera.

6/ Ire musika-jakinduria,
Xegundo, nik eziñ neurtu,
baizikan senti dedan uraxe
nai nikek emen agertu:
iri entzuten ao zabalik
nagola oi nauk oartu,
doñu zoragarri gozo oiek
nolatan ez ontzat artu?

7/ Ire beatzak jostatzen ditek
tekletan ariñ ta alai.
Nola ez bada pianua jo?
Nai ez baukek ere bai.
Musikarekin esaten diguk
senti dekana nolanai;
bertsotan ainbat abilidade,
beste gauzik ez nikek nai.

8/ Gizon eginda ikusi diat
lenoko mutikotxua,
baña oraindik zorionean
gazte ta osasuntsua.
Guri begira zeukagu goitik
beti Jaungoiko altsua,
luzaro entzun dezagun danok
ire doñu eztitsua.

- 9/ Bere semien maitale beti
izan dek Euskalerra,
Segura'n lengo oiturak zeudek
naiz egon jende berria;
ta ziur egon sarri oroitzen
dala itzaz sorterra.
Olako seme jatorrak gora
jasotzen ditek erria.
- 10/ Mutikotatik asi intzan da
iritxi malla goena,
azkar igarri nunbait iretzat
zein zan biderik onena;
arrigarria dek ik musika
lanetan dekan kemena,
uste badute ere gaur gazte
asko-askok ez dutena.
- 11/ I ikustean barruan sortu
zaizkidan pentsamentuak,
ementxe dauzkak, guk len genduan
izkuntz artan agertuak.
Bertsoak ere musikan gisa
zituztek bide estuak,
barkatu, arren, baderizkiok
ez dirala ain prestuak.

12/ Orra eskeñi nik daukadana,
nere lagun zar Xegundo,
nere aldetik lagun izate
au gorde nai nitek sendo.
Itzaz oroitzen ez geranikan
etzak pentsatu egundo,
biotz-biotzez besarkada bat
eta jarraitu zak ondo.

MUTILZARRA ETA EZKONDUA

Mutilzarrak:

Eztabaida bat dala bitarte
gaude zerbait okertuta,
nere lagunak dio obeto
bizi dala ezkonduta;
ni ezin berriz lasai gelditu
guzia sinistatuta,
gauzak garbitu nai genituzke
zuek epaille artuta.

Ezkonduak:

Nere iritziz auzi onetan
ezta epaille bearrik,
euririk gabe belar zelaiak
eztu ematen belarrik,
Zuen biotzak maitasun gabe
alaxe daude legorrik,
ta mutil zarrak mundu onetan
ez al ditugu alperrik?

Mut.: Ezta ainbeste nere biotzak
dadukan legortasuna,
ezkondu gabe geldituziak
badu bere poztasuna.
Gogoz ar zagun bizimodua
Jainkoak eman ziguna,
ez al da maite izatekoa
nik dedan askatasuna?

Ezk.: Askatasuna gauz ederra da
gazte geran bitartian,
ta bide txarrak utziaz zuzen
ibiltzen geran artian.
Baña arantzak izan oi dira
larros ederren tartian:
zure erruki nork izango du
pixka bat zartzen astian?

Mut.: Nola liteke eduki ainbat
bildur-ikara zartzeko?
Zer premi daukat familiaren
bearkizunak artzeko?
Ez naiz jaioa emaztearen
mendean bizitutzeko,
illobaren bat ezta paltako
salda pixkat berotzeko.

Ezk.: Anai-arrebak eta illobak
badituzte beren lanak,
nolatan egin bada zureak
atzera utzita danak?
Goxotasunik ezin dezake
bildu ereiñ etzuanak,
nola ordaindu seme-alaben
muxu goxo ta laztanak?

Mut.: Ez zazu izan ainbat sinismen
zure seme-alabetan,
oien onbidez emen zabiltza
ia urtuan neketan;
uste gabeko gauzak gertatu
oi dira mundu onetan,
zenbat ezkondu ikusten dira
gaur beartsutegietan?

Ezk.: Urik iñundik ez baldin badu
agortzen da iturria,
seme-alabik jaio ezian
galduko da jatorria.
Galtza narratsak, bizar luzia,
begiratua larria,
mutilzarraren itxura ezta
bizirotu gustagarria.

Mut.: Apaiñ jantzita azaltzen zera
txukun jarrita gorbeta,
bañan askotan gose-xirrian,
ez beintzat ondo aseta.
Diruak berriz andreak dauzka
bere aldetik gordeta,
egingo nuke ez dituzula
patrikaran bi pezeta.

Ezk.: Zenbat mutilzar ondatu ditu
diru t'aberastasunak?
Ainbat badaki munduko berri
ori esaten dizunak.
Taberna-zale, jokalari ta
sarri oitura lizunak;
azkurerikan ez dit ematen
klase ortako asunak.

Mut.: Ez uste izan zer kezka dezun
ez dizudanik igarri:
ondorengiak ase eziñik
zabiltz estu eta larri.
Gurutz astuna dezu sorbaldan
baña nik ez nizun jarri,
ikusi nola aurre goxuak
atze miña dun ekarri.

Ezk.: Nabarmen daude zure buruan
jaiotzen diran asmuak,
ez nau galduko bazter ortatik
bota didazun amuak.
Guri eskerrak ematen ditu
euskal zuaitzak kimuak,
munduarentzat berdintsu dira
mutilzarrak ta tximuak.

Mut.: Zenbait ezkondu gaizki esaten
izan oi dira pijuak,
zuk diozunez mutilzar danok
gera oso gauz bajuak.
Neskatx maiteok, ez uste izan
gaudenik orren lur juak,
eztu aitortu nai, baña emen
gaude mutilzar majuak.

Ezk.: Euskalerrian badira ainbat
neskatx eder eta gazte;
eztira uxkur izango, leial
ta biotzez bazoazte.
Lore politik biltzalle txukun
bizkorrak bear dituzte,
oso baldartu baña lenago
azkar ibilli zaitezte.

BIZIA

1/ Bizia zer dan bertsoz esaten
badago naikoa lana:
da gauz bat, Jaunak arnas emanda,
Adanengan asi zana,
izadi dana Ark jarritako
bide artan daramana,
Jaungoiko Jaunak beste iñortxok
sortu ez dezakeana.

2/ Sortu ta jaio, azi ta izan,
au doai arrigarria,
zeruko Jaunak alaxe nairik
gugan duana jarria!
On egiñ eta zeruratzeko
aukera zoragarria,
gorputz-animak alkartzen ditun
lokarri miragarria.

3/ Neri bizia zorionaren
azia dala deritzat,
ill bear bera ar-erazteko
guretzat gauz pozgarritzat.
Bai itz aundia, bera izanik
fedea duanarentzat
eriotzaren sustraietatik
datorkigun ill-eziñ bat.

UDABERRIA

- 1/ Negu beltzari gordinkeriak
amaitzen zaizkionean,
eguzki argi dizdiratsua
epeltzen asten danean,
basoetako txoriak alai
kantuz jartzen diranean,
errekatoak mar-mar apalez
mintzatzen zaizkigunean,
orduan gaude urteak duan
arorik goxoenean.

- 2/ Udaberria! Zalantzik gabe
zu zera edertasuna,
mendi ta ibar, baso ta zelai
lorez jazten dituzuna,
gaxorik dauden gorputz-animen
arnas-berri, osasuna,
usai gozoko muxuz zentzunak
txoratzen dizkidazuna.
Zer ote zera? Maitasunaren
deia ala oiartzuna?

3/ Udaberria zer dan esaten
eziñean zertan ari?
Galde zaiozu ibai-ondoko
lili txuri apalari,
edo mendian ostoz jantzi dan
pago sendo, mardulari.
Nik auxe diot udaberria
ikusi nai duanari:
Apirillean bixitatxo bat
egiñ Euskalerrriari.

XALBADOR

DOÑUA = KONTXEXIRENA

- 1/ Oraiñ berrogeitamar
urte inguru
euskal mendi-tarte bat
biurtu zeru;
au argi-printza!
Ai, argi onen diña banintza,
ain da bikaiña!
Ez naiz bere aurrerako aiña,
begiraturik
argiak uzten nau itxuturik.

- 2/ Gure lur maite onek
Prantzi aldetik
lore bat agiri du
Urepel'etik;
ain da usaitsu,
Euskalerra dana zoriontsu
ari begira;
lili txuri politak badira,
baña ain fiñak
gutxi ditu Jainkoak egiñak.

- 3/ Ikusi loretxua
mendi tartian
irripartsu ta bigun
ardi artian;
ori dizdira!
Eguzkia, berari begira
lilluraturik;
maitasun gozoz inguraturik,
dana poztuaz,
arditxoen laztanak artuaz.
- 4/ Urepel'en sortu zan
lore gaxuak,
jasorik arditxuen
bee goxuak,
uzten du lurra;
entzun bere egada-xuxmurra;
txori biurtu,
euskal-anima nai du xuxpertu,
beraren berdiñ
ameslari, aske izan dediñ.
- 5/ Kantari asitzian
basorik baso,
biotz menperatuak
nai ditu jaso
eta bizkortu;
itxaropen indartsu bat sortu
bere abestiz;
zoragarria izanik guztiz
aren jarduna,
jeiki da arraza euskalduna.

6/ Bere izate artan
nai du gelditu,
baña arantzak ere
arkitzen ditu
kabian sarri,
gizonak bai dizkiote jarri
arintasunez;
ezin zapaldu ego bigunez,
ta, arturik miñ,
len txori zana gizon da egiñ.

7/ Orra gure txoria
gizon jantzian,
maitasuna dario
itz bakoitzian
mardul, ugari;
askok eziñ ulertu berari;
ain da sakona
biotz zabal aundi-dun gizona;
txit maite gaitu
baña guk ez degu ezagutu.

8/ Beste grazi bat ere
badu oraindik
gañez egiñaz beste
guzien gaindik,
gu txoratzeko:
biotzak maitasunez sutzeko
bertso-doaia,
Jaungoikoaren sari alaia
sortu zanari
lore, txori, gizon, bertsolari.

9/ Bikaintasun zale dan
Euskalerrriak
goxo babesten ditu
lore berriak
bere kolkuan;
frutu ematen asitakuan,
izen bat eman,
gure berri nunai eman dezan
garbi ta jator;
ortarakoxe degu Xalbador.

10/ Euskal arraza dago
erdi-ill, lotan;
esnatzearren artu
dezu besotan;
nai dezu piztu,
baña guk egin dizugu txistu
buru ariñez;
zuk bezela sakontzen jakiñ ez
pentsamentuak.
Zer egin duan esker gaiztuak!

11/ Zure itz sakon aiek
eskeñitzian,
eta lur legorrean
eroritzian
erne ezinda,
biotz xamur orrentantxe min da;
baña berriro
sortu zenduan maitasun-giro
negar egiñez,
gu geiago maitatu eziñez.

12/ An azaldu zan zure
gizatasuna,
anaiongana dezun
maitetasuna
bero ta xamur;
malkoak ixurtzen etziñan zur;
lan da sinisten
antsi au nola zitzaizun irten
biotz barrendik:
«Baina maite zaituztet oraindik».

13/ Zure nortasun orrek
igorik gora
danok urbildu gaitu
zure ondora;
bene-benetan
sartu zera gure biotzetan
beti-betiko;
maitasun au ez da iñoiz illko,
nere ustian,
euskaldun bat bizi dan artian.

14/ Egiak beti bere
bideak ditu,
aiek arkitu arte
ezin gelditu;
ene, Xalbador,
arrazak erantzun dizu jator;
orra omena
anaiak eskeintzen dizutena;
artu ta gorde
egindako iraiñ aien orde.

15/ Atoz, atoz, Xalbador,
ez izan kezkek,
gu ez gaitu nekatzen
zenbait eguzkek;
biotzez gabiltz;
ai, sarritan gurekin bazebiltz,
ezer geiago
naiko ez genduke, ziur nago;
sinistu zazu:
gure maite kuttuna zera zu.

ZUMARRAGA'KO GALEPERRA ALKARTEARI

- 1/ Milla beatzireun ta irurogei
eta seigarren urtean,
bere Epailak amabi egun
zituan larunbatean,
jai-aldi polit bat ospatu zan
Zumarraga'ko partean;
sei bertsolari gazte arturik
eurekin babes batean,
eun bat euskaldun bildurik zeuden
Galeperra alkartean.

- 2/ Itxaropenez bete-beterik
juan giñan Galeperrera,
gure izkuntza gogoz maitatzen
duten txoko ederrera;
beti goguan izango degu
egin ziguten arrera,
an bai euskera jaulkitzen zala
alai zerutik lurrera,
galepertarrak gertatutako
baratz mardul samurrera.

3/ Apari goxo eta apaña,
bertsoak apal-onduan,
Galeperrera bildu giñanok
zer geiago nai genduan?
Neurri guztiak aurrez arturik,
ezertxo ez beranduan,
biotz zabalez artu gaituzte
anai batzuen moduan,
oraindik ere lagun jatorrak
arkitzen dira munduan.

4/ An bai giñala danok etxeko,
iñor ez erbestekorik,
beste alkarte bat bai ote da
au baño jatorragorik?
Galeperrean etzan ikusten
jauntxo edo arroxkorik,
ez degu izan bete gabeko
kutizi edo gustorik,
ebñ esango degu ez dala
iñoiz zorion osorik.

5/ Bertsolarien neurketatxo bat
artu zenduten aitzaki,
gazte diranei zuek bideak
bai pulamentuz ebaki;
gauza oberik egiterikan
al liteke erabaki?
Ama Euskerak bertsoak ditu
bizigarri eta jaki,
egiten zaizkan mesede auek
eskertzen ere badaki.

- 6/ Lendikan bertsolari diranen
laguntza eta itzala
bai egun artan Galeperrean
ondo nabarmendu zala;
eta uste det izendatzea
oso bidezko dala:
gure egarri au asetzeko
saiatuak egiñala
Lazkao-Txiki eta Lizaso
eta Agirre zirala.
- 7/ Nere ustetan beintzat kalterik
ez dator bertsoetatik;
galepertarrok, oitura auek
gorde Jaungoikoagatik,
aitzakirikan entzun ez dediñ
gure ondorengotatik!
Bide onean sartu zerate,
jarraitu zintzo bertatik,
oraiñ bost urte artu zenduten
arrasto zuzen ortatik.
- 8/ Galeperreko lendakari jaun,
zuzendari ta lagunak,
bai une alai zoragarriak
or igaro ditugunak,
nai izan arren ondo eskertzen
zaill egiten zaizkigunak;
ez uste izan gure itz auek
diranik uts ta lagunak,
ortara nola jarriko giñan
izanikan ezagunak?

AGUR, SEME!

1/ Seme maitea, gaur jakiña naiz
ustegabeko berria:
mixioengan omen dezula
zure biotza jarria;
utzi nairikan zabiltz batian
guraso ta sorterrria,
aita batentzat ez al da auxe
albista samingarria?

2/ Seme bakarra zeran aldetik
nik zaitut oso kuttuna,
zu zera nere itxaropena
pozgarri ta osasuna.
Pentsaturikan mixiolari
orain jua bear dezuna,
au atsekabe samin garratza,
au biotzeko utsuna!

- 3/ Uste dedanez galdua zaitut
betiko mundu onetan,
nere biotza murgildu dezu
bizitz guztiko penetan.
Itxaropen bat bakar-bakarra
dadukat une auetan:
zeruan aita- seme izango
gerala berriz benetan.
- 4/ Ondo pentsatzen jarri ezker
gerekoi t'argalak gera,
zorion danak nai genituzke
itzuli geure aldera.
Jarri gaitzen zalantzik gabe
Jainkoak nai duanera,
aurrera, seme, zoaz Beraren
Berri ona zabaltzera!
- 5/ Nik eta zure amak zaitugu
egiaz seme bakarra,
Jaunak beretzat bear bazaitu
zertarako da negarra?
Mixioetan izango dezu
kemen guzien bearra,
baña etzaite sekulan aztu
nork eman zizun bularra!

6/ Gorputz beltzeko gizarajoak
anima nola daraman,
ezjakiñaren akats guziak
pazientzian eraman;
zeruko Jaunak seniderikan
etzizun ezkeron eman,
gañezka dezun maitasun ori
ixuri aren animan.

7/ Gure Jainkoak ez gindun noski
egiñ mundu ontarako,
emengo neke-samintasunak
dira gure onerako.
Eskatu sarri bere laguntza
zure gurasoentzako,
eta orrela bere grazirik
etzaizu iñoiz faltako.

8/ Iñoiz ikusten baldin bazera
arrixkoz inguratuta,
jaso biotza Jaungoikoagan,
Ark lagunduko dizu-ta,
amak eta nik ere zugatik
erregutuko degu-ta,
Arantzazu'ko Ama Birjiña
bitartekotzat artuta.

9/ Gure seme au Zuk emana da,
ene Jaungoiko maitea,
bear badezu bidezkoa da
berriz Zuri ematea.
Zure erabaki sakona bera
mixiotara juatea?
Egin dedilla orain da beti
Jaunaren borondatea!

SEGURA'KO MADURA

1/ Tontor batean erri polit bat,
bere oñetan madura, (1)
bien artean badute lore
sortatxo baten itxura;
zeiñen ederra dan ikustean
auxe datorkit burura:
Euskalerriko eguzkiaren
printza bat dala Segura.

2/ Urte batzuek baditut ia
jaiotetxetik aparte
eta begiak asetzen ditut
alderdi auxe bitarte;
lur-puxka onek izan bear du
zeru berarekiñ parte,
zer utzi nuan ez nekian nik
atzera etorri arte!

(1) Madura = ordeka.

- 3/ Udaberriko jai-egun bat zan,
etzait beiñere aztuko,
Zerain'dik bera netorrenian
meza bukatu orduko,
bide erdian gelditu nintzan
oñak egiñikan uko;
nere barruan ainbat zorion
ez da geiago sortuko!
- 4/ Aiek basoak, aiek soroak,
ura eguzki dizdira!
Txoraturikan gelditu nintzan
Segura aldera begira;
itxas-ertzian ibilli edo
naiz igo goiko mendira,
au bezelako leku politak
gutxitan ikusten dira.
- 5/ Zenbat ditugun madura onen
emaitz eta ondasunak
ezin lezake ondo azaldu
mingaiñaren moztasunak;
zelai, sagasti, soro bikaiñak,
emengo mardultasunak!
Nekazariak zer naiago du?
Oiek aberastasunak!

- 6/ Zubiberri'tik begiratuta
lurrak zeru-jo artian,
edo Mendarte baserritikan
zabal-zabal ikustian,
Oria ibai marmarrariak
ebakiaz bi zatian,
orren madura lasai alairik
ez da Goierri guztian.
- 7/ Nun zer ikusko baldin bazabiltz
etzaitez egon zalantzez,
lur-zatitxo bat emen daukazu
jantzia zeruko antzez;
zure biotza illun badago
atsekabien arantzez,
etorri onuntz, sendatuko da
atsegiñ ta pake utsez.
- 8/ Ai, Segura'ko madura kuttun,
eder ta zoragarria!
Ementxe zaude maitasun guziz
Jaungoiko berak jarria,
gure begien atsegingarri
zerutikan ekarria;
ni eziñ beti ementxe bizi,
au da neretzat arria!

MAIXUAK

- 1/ Ixilik eziñ egon naiz eta
astera noa bertsoan,
orretarako gaur maixu jaunak
artu nai ditut aotan;
oien gorantzak irakurri ta
entzunagatik prankotan,
ez ditugula aintzat artutzen
iruditzen zait askotan.

- 2/ Bat edo bestek esan lezake:
«Beste berritxu bat ara;
itz biribillak jaulkiko ditu
gure belarrietara.»
Baña maixuok ez uste izan
nijoanikan ortara,
itz utsez ezta iñor jasotzen
merezi duan mallara.

3/ Zenbat losintxa ta zurikeri!
Nola litezke eraman?
Maixu jaunak nork geigo igurtzi
or dabiltz guztiak deman.
Itzezko sari ezerez ori
nola aizeak daraman,
askozaz ere obe litzake
erdia dirutan eman.

4/ Aspalditxoan gauz batzuetan
egĩn arren alegiña,
erakusketa aztu xamarrik,
ori da gauza jakiña;
gaur jakinduriz beste batzuen
malla iritxi eziña,
ez estuenaz aurrera lanak
artuaz asi bagiña.

5/ Erakusketa bear bezela
moldaturik bagenduke,
agian beste zakur batek gaur
zaunka egingo liguke;
orregatikan maixuak ordaiñ
tajuzko bat bear luke,
gaur egunean iñork nai al du
lanik egiñ musu truke?

- 6/ Egarri degun aurrerapena
ikastetikan badator,
lendabiziko maixuei lagun
egiñ oparo ta jator.
Egia da ta au esatera
kezkarikan gabe nator:
ortan botatzen degun dirua
berriz geuregana dator.
- 7/ Entzuten danez beintzat maixuak
meritu asko dituzte,
ezer izango ez giñan pranko
gizon egiñ baigaituzte,
makiñatxo bat bizi-bidean
sartu ere bai, nik uste.
Zergatikan ez ordaindu bada
balio duten ainbeste?
- 8/ Gure umeak eskolaratu
ta lasaitzen geranean,
zorrotz eskatzen degu maixuak
piñ saiatzeko lanean.
Poz pixkatxo bat ona da zintzo
jokatu bear danean,
baña bestezaz ez gogoratzen
geu ondo gabiltzanean.

9/ Maixuen esku egonik gizon
askoren etorkizuna,
lagundu bada ondo betetzen
daukaten bearkizuna.
Kendu lenengo bizi eziñak
duan eramankizuna,
geure onaren billa bagabiltz
or danon eginkizuna.

10/ Maixu jaunaren lanak bear du
tokatzen zaion ordaña,
ezin-bizi ta bearkeriak
artu ez dezaten gaña.
Atzerapena dute gaitz oiek
beren sustrai eta zaña,
ta zerk pizten du aurrerapena
jakintza on batek aña?

11/ Jakintza on bat ez al du gaurko
gizadiak oñarria?
Ezjakiñaren bizi-bideak
beti motza du neurria.
Obeto izan naiak berekiñ
nola duan egarria,
danon artean arretaz zaindu
bear degu iturria.

12/ Danok nai degu etorkizuna
ikusi garbi ta lasai,
al baldin bada geu ondo bizi,
ondorengoak ere bai.
Ori guzia ezin liteke
iritxi noski nolana;
ezpadakigu, egin bideak
erakusteko daudenai.

ESKERRIKASKO

1/ Or nola nitzaz oroitu diran
nere lagun zegamarrak:
uste gabian gaur artu ditut
bi botilla ardo zarrak.
Edan baño len alai jarrita
au dio legazpiarrak:
jator portatu dirala eta
ez dirala gizon txarrak.

2/ Zumaitar jator batek ere or
izango du parte noski,
eman zitzaion mandatu ura
egin du orrek egoki.
Zuekiko ta nerekikoa
betetzen ederki daki,
ardua berak edan dun kezkek
ez ezazute eduki.

3/ Botilla oiek ekarri ditu
paper banatan bilduta,
gauz piñak beti txukun-antxian
erabilli bear du ta.
Ta esan zidan: «Ikusko dezu,
estalgarriak kenduta,
botill bakoitzak nola daukan or
bertso bat eskribituta.»

4/ Bertsotxo ori berealaxe
det arretaz irakurri;
onela dio: «Indartsua naiz
ta artu zaidazu neurri,
eta orduan izango nazu
umorearen iturri.»
Ori moldatu dun euskalduna
ez dabill etorritz urri.

5/ Nik ikustian ardo zar ori
«Edan nazazu!» esanez,
proatu nuan, kutiziari
pixka bat leku emanetz;
ildakua're piztuko luke
berak, nik uste dedanez,
gañera merke irten zait eta
nola arraio edan ez?

6/ Ai zer usaia banatzen zuan
kortexua kendutakuan!
Ortik asetzen zalla dirudi
edaten asitakuan;
batere uste ez nuala nau
jarri kattuerdikuan,
kontuz ibilli bearko degu
berriz bialdutakuan...

7/ Ai, Garitano ta Iraola,
Uranga lagun artuta,
au poza eman didazutena
sari ori bialduta!
Gizon jatorrak moldatzen dira,
jarri naiz konturatuta,
goierritarrak itxas ertzeko
errietan txertatuta.

LOIOLA'KO ERRI-IRRATIAREN ESTUALDIA

1/ Eibar, Elgoibar, Bergara eta
Mondragoi'ko entzuleak,
itxaropenez deitzen dizute
bertsolari eskaleak,
biotz-biotzez agurtuz orko
baserri eta kaleak,
ondo baitaki etzeratela
atzean egon zaleak.

2/ Amaika premi irrati onek
sarritan estali ditu,
berari lagun egin gaberik
ezin gindezke gelditu.
Oraindik arrixkuan dagola?
Ni bai onekiñ arritu!
Bestezaz kupitzen danagatik
gu nolatan ez kupitu?

3/ Gure irrati onek eztio
iñori egiten gaitzik,
bazar guzitan errukia ta
poza zabaltzea baizik.
Orañ aldian egiten digu
eskari xamur bakoitzik,
desanparatzen baldin badegu
ez degu noski biotzik.

4/ Or gure orde on egiteko
Loiola nun dagon gertu,
orregatikan berekin danok
bear genduke alkartu.
Lan oiek zenbat balio duten
ezta oraindikan neurtu,
maitasunezko iturri ori
ez dezagula agortu.

5/ Laguntzarik ez dezaio gula
ukatu iñoiz iñori,
premi estuak bixita egiñ
leikigulako danori;
ondo bagaude ere, gogoan
eduki bear da ori.
On egiñ bada al dan guzian
begiratu gabe nori.

6/ Ez dakiñari erakutsi ta
premi dutenei lagundu,
irradi onek sortu zanetik
beti orixe egin du.
Susmo txar eta kezka guziak
gure burutik aldendu,
oiek erruki-egintzak dira
ta ezin litezke ondu.

7/ Esaten degu gaurko munduan
bear dala maitasuna,
ori dalako gaurko gizadi
gaxoaren osasuna.
Zer da besterik Loiola'tikan
mardul eskeintzen zaiguna?
Zabaldu gure biotzak eta
luzatu laguntasuna!

8/ On egiteko gogoia duten
guzien serbitzariak,
Loiola'k ortxe dauzka sallean
gertu bere izlariak.
Zenbat premiren estalgarriak
bere emaitz ugariak!
Ori orrela dala ziurki
badaki bersolariak.

- 9/ Bat edo bestek esan dezake:
«Ni ere premian nago;
nai izan arren zulo guziak
betetzerikan eztago.»
Ondo pentsatu ditzagun gauzak
au esan baño lenago,
begira jartzen baldin bagera
zeñek du premi geiago?
- 10/ Oraindik orko laguntzalleak
ikusten ditut otz xamar,
zalantzatikan irten ezinda
bata besteakiñ mar-mar.
Aiton, amonak, seme, alabak,
emazteak eta senar,
danon artean bost eman beintzat
ezin baldin bada amar.
- 11/ Gaxo zaudeten guziok ere
zer ikusi badezute,
aiñ ikustaldi goxoak sarri
nork egiten dizkitzute?
Jaungoikoaren grazitan parte
berezia daukazute,
Loiola itxi ez dediñ gogoz
otoitz egiñ ezazute.

12/ Ai, beartsuak, zuentzat ere
datoz oso berri txarrak,
maitasunezko itxaso ontan
auek ekaizte zakarrak!
Irrati oni eutsi dezaion
zuen otoitzen indarrak,
eskeñi, arren, bai, bere alde
zuen neke-ezbearrak!

13/ Au pena daukat begiraturik
gure baserrietara,
ai, samintasun au iritxiko
balitzake oietara!
Ixiltasuna erortzen bada
bere pixuz Loiola'ra,
euskera zeñek eramango du
zuen sukaldeetara?

14/ Amaika bider egon oi gera
Loiola'ren ametsean,
euskal-jokuen berri ta bertso
saioak entzun pozean;
baña kontuak oraiñ atera,
ez ibilli jolasean,
ametsa pena biurtu leike
garaiz saiatu ezean.

15/ Eta irrati ori eztala
euskaldunontzat bakarrik
bera entzuten dutenei beintzat
eztago esan bearrik.
Iñori ere ez dio jarri
sekula arpegi txarrik,
eutsi zaiogun alkartasunak
badu batere indarrik.

16/ Baña ez degu izan bear guk
itxaropenik gabeak,
beren azkena izan oi dute
munduko atsekabeak.
Irrati onek ikusko ditu
oraindik egun obeak,
bere ardura izango du, bai,
guztion Jaun da Jabeak.

17/ Jaso biotzak, lagun maiteok,
trixtetu ez gaitezela,
negu gogorrek ekarriko du
udaberriko epela.
Ni ziur nago oraindik garai
obeak badatozela,
gau illunaren ondoren egun-
senti alaia bezela.

18/ Orain txoriak juan bearra du
puxka bateko emendik,
miñ eman arren agurtutziak
itzal babes auengandik,
Lengo kabira etorriko da
al baldin badu iñundik,
Loiola'tikan alai ta goxo
kantatuko du oraindik.

ZEGAMA TA ZEGAMARRAK

1/ Gizona beti barruan daukan
sentimentu ark darama,
une onetan ni ere orrek
bertso jartzera narama,
Zeuk dakizunez aspalditikan
zaitut kuttuna, Zegama,
nola daukazun txit erri alai
eta jator baten fama.

2/ Erreztasunik asko izan det
zu ondo ezagutzeko,
ezpaitaukazu kopet illunik
auzokoeri jartzeko.
Neke askoren bearrik ezta
zu biotzez maitatzeko,
eta ez uste zauzkadanikan
utsaren truke saltzeko.

3/ Esango nuke zuk bi besoak
beti zabal dauzkatzula,
eta nunaitik gizalegeak
gañez egiten dizula,
orruntz datortzen danak semetzat
laster artzen dituzula.
Nik ondo dakit gauz ontan oso
agur aparta dezula.

4/ Ez uste bada guri erri au
arrotz egiten zaigunik,
or bertakuak ez geranikan
pentsatzen ere degunik.
Zegama'k badu nabarmentzeko
señale bat ezagunik,
au da: Datorren ari etzaio
faltako emen lagunik.

5/ Zegamarrikan ezta egongo
iñoiz atzera begira,
trebe jokatu bear danean
eztu izango kupira.
Orko semeak zabaldu dira
gaur ia mundu guzira,
gizon jatorrak nun eta noiznai
ondo artuak baitira.

6/ Jokera fiñik bat baldin bada
ixpillutzat jartzekua
zegamatarren diñtasuna da
aintzakotzat artzekua.
Nun-nai azaldu liteke baña
bereala etxekua,
ugari eta estimatuak
ez al da arritzekua?

7/ Orko semeak banatu arren
munduan bizi-bearrak
nun-nai edozeiñ lani eltzeko
sena badu zegamarrak.
Gizatasunez beteak dira,
saiatuak, ez zabarrak;
Euskalerrak eztauzka ez or
oso mandatari txarrak.

8/ Zegamar batek bere erria
maitatuko du benetan,
bere jatorriz ederretsiaz
dabilen leku danetan.
Sakabanatu bizi diranak
bakoitzak bere lanetan,
euren txokoan bilduko dira
ziur San Bartolometan.

- 9/ Zegama'k maite baditu ere
pesta ta alaitasuna,
bear danean azalduko du
bulartsu kristautasuna.
Bertso ta euskal oiturentzako
badauka zaletasuna,
gure arrazak oraindikan or
sendo dauka osasuna.
- 10/ Gazte nintzala neretzat grazi
danak Zegama'k zituan.
Ai, lagun zarrok, or une alai
pranko pasa genituan!
Gaur nola esan zenbat oroipen
gozo berritzen dituan,
lenen-maitasun laztanak ere
or nabaitu bainituan?
- 11/ Garai bateko adiskideak
nola utzi nik atzian,
ain zorientsu izandu giñan
denboraz gogoratxian?
Oraindik ere or alkarrekiñ
biltzen geran bakoitzian
esker ona ta maitetasuna
pizten zaizkit biotxian.

12/ O, Aizkorri'ko Gurutz Santua,
arren egiguzu lagun
gure izkuntza eta oiturak
arretaz gorde ditzagun,
euskalduntasun orren bitartez
izanik kristau ezagun
egunen batez zure besotan
danok atsedean dezagun.

EIZTARIEN BILLERA

- 1/ Lengoan egin degu
eiztari-billera;
aurten pulamentuz ta
garaiz asi gera.
Gertatua esan nai
gutxi gorabera,
eta erabaki det
bertsoak jartzera.

- 2/ Legazpiarrak zortzi,
bat italiarra,
zeraindar bi, alkate
urretxuatarra,
bertsolari jator bat,
au azpeitiarra,
eta danok zaintzeko
mediku naparra.

3/ Eiztari danok errez
zaleak gerana,
fama ala da baña
ez sinistu dana.
Au da nik maian ondo
ikusi nuana:
jendeak piñ egiten
zuala an lana.

4/ Nolabait ere sartu
bear zan arian,
bapo jan eta edan,
lertzeko zorian;
ez giñan bildu noski
eliz-atarian,
mutillak, etzan giro
apal ondorian!

5/ Ardo markakuak ta
ondoren txanpañak
pizkortu zizkiguten
ederki ezpañak;
danok azaldu giñan
eiztari apañak,
beatzen ordez poztu
ditugu mingañak.

6/ Bere opiziu
nork eztu jakiten?
An zuzen apuntatzen
guziak zekiten;
aidian jua edo
egon itxogiten
iñork ere etzuan
kalerik egiten.

7/ Ura egur-soñua,
danak jo ta garbi,
desegiñak eztakit
zenbat pixti-kabi;
basurde edo uso,
eper edo erbi,
noiz-nai erortzen ziran
tiro batekin bi.

8/ Iskamilla pixka bat
baretu zanean,
gizon formalak zeuden
mai-jira danean;
badakigu serio
ekiten lanean,
erabakiak artu
bear diranean.

- 9/ Billera au omen da
geure onerako,
lekuak gertatzeko
uso-eizerako;
neurriak artu dira
udazkenerako,
egaztirik etxean
etzaigu paltako.
- 10/ Pozik egon ditezke
gure emazteak,
zer alderdiak gizon
piñak izateak!
Laster gure etxeak
okelaz beteak,
eztu galerik gauzak
aurrez ikusteak.
- 11/ Emen beti pozaren
ondoren negarra,
baseritarrentzako
dator arri txarra:
usoak asitzean
aurten parra-parra,
nai ta nai ez txekorrak
merkatu bearra.

12/ Geiagorentzat ere
badaude propiñak,
emango dizkiegu
konpita gordiñak:
lanak jarriko ditu
basurde-zeziñak,
gaizki ibilli bear
dute arakiñak.

13/ Guk bai gustoko lana
azkar aukeratu,
baña ez ote gera
goiztxo aztoratu?
Egoaizerik gabe
onela zoratu,
ortik ezin liteke
etxerik goratu.

14/ Ez uste izan, bertso
auek entzutean,
onela nabillenik
iñoren kaltean.
Moldatu ditut broma
jartzeko ustean,
neroni ere antxe
bainitzan tartean.

BERTSOLARI-SARIKETA

1/ Jakin dedanez laxter ditugu
berriro bertsolariak,
Euskalerrriak maite dituan
txori polit kantariak.
Noiznai ez dira entzun izandu
ain berri jostalariak,
itxuratutzen asi baitira
jartzen zaizkaten sariak.

2/ Bertsolariak dezaketena
edozeiñek nola egiñ?
Au askok uste badute ere
asi ta iñola eziñ;
gure Jainkoak ez gaitu noski
do aiz danok jantzi berdiñ,
oiek artixta batzuk dirala
esan nai nuke onekiñ.

- 3/ Gaur egunean zenbait artixta
dabiltza pitxiz jantzita
ta gizartean goi-goieneko
malla ura iritxita.
Bertsolariak sari kontuan
zerbait alde bat utzita,
baña besteak ainbat badira,
egon gindezke etsita.
- 4/ Ez al dituzte artzen askotan
zurikeri aunditxuak
orain aldiko kitarra-jole
ille-luze bizartsuak?
Ainbat garrantzi baldin badute
oien karraxi txatxuak,
zenbat balio dute euskaldun
gizon jatorren bertsuak?
- 5/ Gizon trebien billa gabiltza
urrutietan askotan,
geure etxian eduki arren
aukerik asko prankotan;
ia esnatu-garaia degu
sekula esnatzekotan.
Euskal artixtak nork estimatu
guk ez estimatzekotan?

6/ Sariketa bat gauz estua da,
eta daukan arrixkua?
Len egindako danak galtzeko
ai zer irrixta-lekua!
Bertsolariak bidezko dute
ordaiñ bat itxurazkua,
maite zaitugu esate ori
bakarrik ez da naikua.

7/ Sakon ta alai, trebe ta apal,
au da arritzekoena,
berak izanik gure doaitan
dan zoragarritzkoena.
Euskeragatik egin duana
lanik baliozkoena,
al dan aiñean saritzea da
eskerrik egizkoena.

8/ Gaitasun billa baldin bagabiltz
jarri sariak aukeran.
Goi-mallan egon bearrekuak
zertarako utzi beran?
Nik biotzean au nabaitzen det
zalantz alai baten eran:
Etxeko gauzak aintzat artutzen
ia oraiñ asi geran!

- 9/ Eguzki epel, goxo, biguna
badator bertso-zelaira.
Ez ote gera ia iritxi
une pozgarri alaira,
urrezko orri-alde bikaiñ bat
idatziko dan garaira!
Oraintxe asi gera apaintzen
bertsolarien kondaira.
- 10/ Al duten oien artean ere
badaude bertso-zaleak
ta, erakutsi dutenez, gure
oitura-zar-maitaleak,
konturatuak bertsolariak
ez dirala eskaleak,
baizikan gure euskal arraza
onen berri-emaleak.
- 11/ Antziñatikan gaur egun arte
belaunetik belaunera
bertsolarien besotan dator
gure euskal-izakera.
Arritzekua al da guk oiei
lagundu nai izatera
asmo on eta esku zabalez
danok irtenaz bidera?

12/ Bere artixtak beti gorald
izan ditu sorterriak,
antziñatikan datorzkigunak
dira gauz onen berriak.
Nortasun alde ola jokatu
badute beste erriak,
beste ainbeste zergatik ez du
gingo Euskalerrriak?

ILLOBARI ERANTZUNA

- 1/ Karta txiki bat egin didazu
oso polita bertsotan,
olako pozik ez du osabak
artu izandu askotan.
Euskerak gozo lo egiñ oi du
mutill jatorren besotan,
eta euskeraz egiñ bear da
euskaldun izatekotan.

- 2/ Bertsotarako apizioa
dakarkizu gaztetatik,
kaltegarritzat ez dezu eta
jarraitu bide ortatik;
goiko mallara igo zindezke
juan ezkeru bertatik
bertsolari bat nai nuke izan
ainbeste illobetatik.

3/ Zuk zeure kasa bertsotan egiñ
beti zabiltzan lekuan,
bai eskolara zoatzenian
ta andik etxerakuan;
zer esanikan ez dago berriz
bei-zai juaterakuan,
ia plazara irtetzen zeran
aundia egindakuan.

4/ Bizitz au zear arkitzen dira
loreak ainbeste sasi,
esan nai nuke emen gauz onak
ta txarrak daudela nasi.
Ezjakiñean etzaitezela
aukera egiten asi,
orretarako al dezun arte
eskola asko ikasi.

5/ Emen lanetik bizi bear da,
ez egon orren zalantzan,
ikusi nola arrosatxoak
azitzen diran arantzan.
Sorcan eziñ baldin badezu
saia zaitia baratzen,
begira nola aita ta ama
dauden zure esperantzan.

6/ Eskatzen dezun erantzun ori
nola dizut ukatuko?
Osaba batek bere illoba
ez al du estimatuko?
Baña gauz auxe esan gaberik
ez det karta bukatuko:
emen esanak egiñ itzatzu
ta etzaizu damutuko.

GIPUZKOA'K
ERE UNIBERSIDADEA NAI

1/ Gaur berri asko jakiten dira
ta modu askotakoak,
asko utsaren urrengo eta
batzuek garrantzizkoak;
oraiñ aldian datorzkigunak
ez dira nolanaikoak:
Unibersidade bat iritxi
nai duala Gipuzkoa'k.

2/ Guk ikastegi orren utsuna
nabaitzen degu prankotan,
nai ta eziña onek sortzen du
gaurko famili askotan.
Gipuzkoa'ko buruzagiak
au dabilkite aotan,
agintari jaun oiek ez daude
ikusten degunez lotan.

- 3/ Gure gaztedi maitagarria
jarri da ikasketara,
baña oraindik bide luzea
unibersidadetara;
balio duten asko ta asko
eziñ juañ oietara,
orregatikan ikastegiak
etorri bear bertara.
- 4/ Poz aundirikañ ez du ematen
batzutan egi gordiñak,
ortik etortzen dira sarritan
gure konpondu-eziñak.
Guziok Aita batenak gera
ta danok berdiñ egiñak,
orregatikan bear ditugu
erosotasun berdiñak.
- 5/ Zergatik bada erreztasunak
gorde bakar batzuentzat?
Tokamentuak izan bear du
legez senide danentzat.
Aukerak jartzen baldin badira
saiatu nai dutenentzat,
guztientzako onura eta
kalterik ez iñorentzat.

6/ Prestaera on bat baño zer du gaztediak obeago?

Ikastegi nagusi orrek gaitz egiñ beldurrik ez dago; len asko zuten aiek ez dute izango, ez, gutxiago, baña len ezer etzeukatenak bai bizibide geiago.

7/ Ikastegi au lortzen badegu guztiok poztu gindezke, gazteak bertan egingo dira gizon jakintsu ta aske.

Beti burrukan ibilli gabe zuzentasunaren eske, besterik gabe makiñatxo bat koska berdindu litezke.

8/ Gaur Gipuzkoa eskola txikiz daukagu zerbait betea, au egi bat da, baña bestea naikoa ez izatea.

Gure zeruan nabaitzen degu oraindik argi trixtea, pena litzake ainbeste izar eguzki gabe uztea.

9/ Indar guziak bateratuta
bildu agintariekiñ,
gure premian baldin badaude
ez ondotikan aldegiñ.
Gipuzkoarrok, orain da garai
ta eutsi pixuari piñ,
talentuaren izpirik ere
alperrik galdu ez dediñ.

10/ San Iñazio eta Elkano,
Legazpi ta Urdaneta,
kondaira zear gure baratza
olako lorez beteta.
Geiago ere sortu ditezen
indartu erakusketa,
emango duan lurra egoki
ongarritu nai luke ta.

11/ Gipuzkoa'ren alde fiñezan
ari diran jaun guziak,
atsedenikan gabe dauzka gaur
gure premi ikusiak.
Ordaindu bear ditu ederki
oien lan eta auziak
gaur edo biar iritxiko dan
Ikastegi Nagusiak.

12/ Agintariok, gaur dauzkatzuten
kezkak gu pozten gaituzte,
bertso arlote auek ez, baña
oiek ondratzen zaituzte.
Nekerik gabe ezin litezke
jaso ainbat buru-auste,
baña eskertzen jakingo degu
gipuzkoarrok, nik uste.

NESKATXEN ARANTZAZU'RA IGOERA

1/ Arantzazu'ra gure neskatxen
aurtengo igoerari
bertso batzuek eskeñi nairik
astera noa kantari.
Jesukristoren gurutz santua
arturik danen gidari,
au erantzuna Arantzazu'ko
Amaren dei xamurrari!

2/ Gaurko munduan badira ere
ez dakit zenbat naspilla,
euskal neskatxak saiatzen dira
egizko atsegin billa;
maitasunezko sorta batean
bildurik amar bat milla;
nun ikusten da orlako usai
gozozko lirio-pilla?

- 3/ Ama batenak zirala danak,
etzan aitortzeko lotsik,
ura sinismen mardul, sendoa,
an etzegoan zalantzik.
Bide latzaren bildurrik gabe,
asko ta asko oñutsik,
biotz beroa duan gorputzak
ez baitu nabaitzen otzik.
- 4/ Emen ez dago neskatx bat ere
errezatzen ez dakiñik,
mundu onetan ez baita Amak
sendatzen ez duan miñik.
Ez da ikusten ergelkeririk
edo jazkera ariñik;
Euskalerriko alabak ez du
mundu guztian berdiñik!
- 5/ Euskaldun neskak badu pitxi bat
beretzat guztiz kuttuna:
gorputz-animak edertzen dizkan
grazizko garbitasuna,
txukun gordetzen mundu maltzurak
galerazi nai diguna;
baiña ez etsi; goiko Amari
eskatu laguntasuna!

- 6/ Neska gazteak izan-izan du
buru-ariñaren fama,
baiña bizi gorrotatzen du
oitura narratsen zama;
bere biotzak atsegin billa
Arantzazu'runtz darama,
an daukalako egarri danak
ase dezazkean Ama.
- 7/ Etsairik asko oraiñ-aldian
badabiltz gure kaltean,
oitura onak galdu nairikan
sartu zaizkigu tartean;
zeiñek eutsia, oraindik beintzat,
badago nere ustean:
iraungo dute, neskatxak zintzo
jokatzen duten artean.
- 8/ Mutillak, neskatx on baten bear
izaten zeratenean,
urrutiraño ez beintzat joan,
Jainkoaren izenean!
Arantzazu'ko mendi santura
jo zazute zuzenean,
eta saiatu neskatxak gora
igotzen diradenean.

9/ Buruz jokatu dezagun beintzat
beti al deguneraño,
zori txarrean murgildu gabe
bizi geran arteraño;
itxura utsak gure begiak
ez ditzala jarri laño:
emen askozaz obeak daude
dantza-tokietan baño.

10/ Arantzazu'ko Ama maitea,
biotz on ori zabaldu,
eta diguzun maitasun ori,
arren, zaiguzu azaldu!
Euskaldun-berri-iturburua
sekulan ez dediñ galdu,
gure neskatxen etsai guziak
zure oinpean zapaldu!

(1963/10/10)

BERTSO BERRIAK,
NERE LENGUSU JOXE ALDANONDO'K
AGINDUTA JARRIAK

1/ Joxe Aldanondo'k gaur
eman dit ordena:
«Bertso jartzen egin zak,
mutill, al dekena;
oiek danak biltzeko
ekarri dît tresna,
oraiñ arte munduan
sortu dan onena.»

2/ Esan zidan: «Ez uste
dala berriketa,
tresna au erosteko
nik neukan kasketa;
an zeukat kurioso
bodegan gordeta,
kaso ez egitea
lastima uke ta.»

3/ Jetxi giñaden bada
bodega ortara,
pozik juan izan naiz
leku oietara;
baña begiratzian
alde guzitara
esan nion: «Ez al nauk
sartu kartzelara?»

4/ Joxe Aldanondo au
da gizon abilla,
ateak jarri ditu
gutxienaz milla;
danak ondo itxiak,
ura giltza pilla!
Edozeiñ etortzen dek
tresna orren billa!

5/ Eskallera aietan,
goitik berakuan,
biotza saltoz asi
zitzaidan kolkuan;
gauz asko gogoratzen
estututakuan,
sartzen erezago da
orlako lekuan.

6/ Ate bat iriki ta
itxiaz bestia,
korritu degu biok
bodega guztia;
ondo gordeta zegon
Joxeren pixtia,
tresna txikia baña
bai alkauetia.

7/ Joxek mikrofonua
aurrian jartzian,
ura bildur-ikara
nere gorputzian!
Bertsoak bota itzak
ik odol otzian,
broma gogorik eztek
bodega utsian.

8/ Aldanondo'k bete du
bere kutizia,
zinta, alde batera,
ezta itxusia;
zer entzun ura esan
garbi ta guzia,
bodega baterako
ai zer polizia!

- 9/ Nik nere iritzia
emango dizut piñ,
estutzen ezpanazu
tresna xar onekiñ:
nere oponiua
nai badezu jakiñ,
bete zazu bodega
txakoliñarekiñ.
- 10/ Beti traste txarren bat
badaukat aurrian,
zuzen nualakuan
nabill okerrian;
gaur ere orra anka
sartu bildurrian,
eta nago losintxa
egin bearrian.
- 11/ Len esan det atear
ugari daudela,
eta bakoitzak bere
giltzak dituztela;
emen bizi liteke
markesa bezela,
bodega baten partez
dirudi otela.

12/ Aldanondo au degu
ain langille piña,
diru irabazteko
onek duan griña;
sortu zaio guziak
kastatu eziña,
argatik du bodega
berria egiña.

13/ Ezagun du bizkorra
daukala begia,
osatu du ederki
bere lantegia;
bi eskallera jetxi
eta jauregia,
taberna baterako
lujo geiegia.

14/ Aldanondo'k dirurik
eztu bota ero,
ola nai luke egiñ
beñ asi ezkerro;
emen beti prexkura
naiz kanpoan bero,
zeñ izan litekean
bertako portero!

- 15/ Leku aldrebesera
ez gera gaur jetxi,
Joxe, aberastu aiz,
ala ziot etsi;
orenbeste diru ik
nola dek iritxi?
Zerbaitegatik dituk
ate danak itxi!
- 16/ Dotore pintatua,
nun-naitan marmola,
au lan utsetik eziñ
egin dek iñola;
esaten dek atsedeen
bearra dagola,
zeñentzat gertatu dek
olako kaiola?
- 17/ Ni ari nauk izketan
al dedan modura,
lengusuak etorri
giñun gu mundura;
biok asarratzea
ez uke itxura,
baña garestia dek
tabernako ura.

18/ Etzekit beste leku
bat babesagorik,
eta pikardirako
egokiagorik;
iñoiz bear badek ik
sekretariorik,
etzaidak artarako
paltako gogorik.

19/ Igo giñadenian
bodegatik gora,
Patxi Bilbao eta
Kaxero ondora.
Etorri naiz bada ni
gaur Aldanondo'ra...
Emen adarrerako
beti da denbora.

20/ Bilbao asi zaigu
trapuak astintzen,
nola dan Joxerekin
eizean ibiltzen:
iñork ez omen du au
tiroan berdintzen,
naiz pirripio txar bat
asmatu ez iltzen.

21/ Kaxero azaldu da
gizon prudentea,
auxe da nun dabillen
ondo jakitea;
naiago du sagardo
puxkat edatea,
eztabaida beste bi
oientzat uztea.

22/ Aldanondo ta Patxi,
eizera joanik,
eztu iñork esango
abillak diranik;
pirripioa pixti
mantsua izanik,
bien artean tiro
bat eziñ emanik.

23/ Bi auetatikan nor
da egi-esale?
Kaxero jarriko det
nik epai-emale.
Patzik zion Joxeri:
«Egiñ uan kale!»
Onek berriz: «Bosgarren
tiruan nik dale!»

24/ Patxi Bilbao'k dauka
eskupeta zarra,
Aldanondo'k dionez
apunteri txarra,
kontua pranko baña
eiztari zabarra,
parragarritarako
munduan bakarra.

25/ Joxe're ez omen da
eiztari osua,
bost tiroko fusilla
bai gauz erosua;
gañera kartutxotan
daukan abusua,
ibiltari makala
baña burlosua.

26/ Pirripio bat il da
ainbeste axanpa,
mingañez bai abillak,
gaur jo dute txanpa!
Nola ez ote dute
biak alkar zanpa?
Batek badauka, bai, or
bestek aña tranpa.

27/ Eizean zebiltzala
Joxek Patxiri: Txixt!
Baña Bilbao'k ez du
nai ainbat begi-bixt;
tiratzen asi eta
baldar onek irrixt,
erbia pasa zaio
anka tartetik prixt.

28/ Nor bere buruari
zertan eman sonak?
Ainbat pantasi ez du,
ez, eiztari onak;
itxurik asko badu
Kaxerok dionak:
«Eiz asko eztik jango
auen zai dagonak.»

29/ Kaxerok esan zidan
belarri-ertzera:
«Eztakit nundik baña
badet aditzera,
kostako zaizu baña
obe sinistra:
eskupetak aztuta
juan ziran eizera.»

30/ Baña ez uste izan
lotsatu ziralá,
diximulatu bear
nola edo ala;
etzuten erakutsi
uso-saill makala,
auek badute gero
kopetan azala!

31/ Irudituko zaizu,
auek ikustian,
beti ote dabiltzan
sesio batian;
etzaitezela egon
gauz orren ustian,
makilla autsiakiñ
ez sartu tartian.

32/ Utzi alde batera
uso ta xoxuak,
sukaldetikan datoz
aiñ usai goxuak;
gu beti berriketan,
ortan bai maixuak,
Pantxika ta Leona
lanean gaxuak.

- 33/ Leona, ari zera
txuletak gertatzen,
ez al zera lanean
sekula nekatzen?
Dirututa bazera
ortik apartatzen,
ia gero eztezun
bizitzen asmatzen!
- 34/ Ez nua ni zuretzaz
gaizki esaterik,
ezpaididazu egiñ
mesede besterik;
baña beste mundura
aberats juaterik
eztago, ta ez izan
gauz orren usterik.
- 35/ Griña txar ori nola
berekiñ daraman,
bertsolaria beti
norbaitekiñ teman;
mundu koxkor au bear
nolabait eraman,
beste ezer ezta ta
kontsejuak eman.

- 36/ Leona, nunbait jαιο
ziñan lanerako,
nik ez nuke etxe au
onela jirako;
jarraitu inguruko
danen onerako,
gu naikoa baigera
golfokerirako.
- 37/ Senide galararik,
Pantxika, ni ta zu,
nere aldean biotz
zabala daukazu;
amaika mokau goxo
eman dizkidatzu,
gaur ere zerbaiten zai
ementxe naukazu.
- 38/ Nik frutuak biltzeko
zuk ereiñ aziak,
nola ez nau lotsatzen
au adiraziak?
Lanean penatuaz
zuk irabaziak
zeñek jana badago,
Jaunari graziak.

39/ Kabi batean jaio
eta azi giñan,
ni beti txoriburu
baña zu koziñan;
erdi goseak egon
bearko eskiñan,
zu ni bezelakua
izandu baziñan.

40/ Kutizi bete paltaz
ez nadiñ okertu,
mokautxo bat jartzeko
beti zaude gertu;
anaitasuna ola
nai luke agertu,
ez alzera oraindik
alprojaz aspertu?

41/ Kaxuelka goxuak,
sagardo polita,
Pantxika, ez al nago
gaizki ikasita?
Gauz onekintxe nago
trixtetzen asita:
nik eziñ egin zuri
nai ainbat bixita.

42/ Gaur ere larratu naiz
Donosti'ñ egoki,
apari-merienda
egiñaz ederki;
pena bat besterik ez
dezaket eduki:
berriz ote motxera
juan bear aurki.

43/ Leona eta Joxe,
arreba Pantxika,
emen arkitu det nik
nere Amerika,
eta ez naiz juango
igesi korrika,
baldiñ ezpanazute
bialtzen arrika.

44/ Emen txakoliñ onak
beti du denbora,
sagardoak txapela
jasotzen du gora;
txuleta obe billa
ez juan iñora,
bi begiak itxita
Bar Aldanondo'ra.

45/ Bertso-egarrik iñor
ez dediñ gelditu,
orra Olea'k jarri,
nai dunak aditu;
obe bazan ipiñi
ez baldin balitu,
kulpa guziak Joxe
Aldanondo'k ditu.

AU AGINDU BEARRA!

(Doñua = Aizak i, mutil mañontzi...»)

- 1/ Oraingo bertso berriak
guztiontzako jarriak
izango dira baldin laguntzen
badit etorriak.
Aginpide-egarriak
gañeztu ditu neurriak,
orrek ekarri bear dizkigu
istillu gorriak.

- 2/ Makiñabat negar malko
pakerik ez degulako
ixurtzen dira gaurko munduan
gure kalterako;
dana libre guretzako,
esiak bestientzako,
guzia alkar errespetatzen
ez dakigulako.

3/ Albotik ala digute:
«Gu maite al gaituzute?
Gure akatsen berdiñak zuek
ere dauzkatzute.
Auxe eskatzen zaizute,
gogoan izan zazute:
errespetatu alkar, maitatzen
ez badakizute».

4/ Zuri ta beltzen artian
leize bat dago tartian,
sosegurik ez utsune ori
bete bitartian;
beti burruka batian
guziontzako kaltian;
onela izan bear al degu
bizitza guztian?

5/ Gazteak aztoratuta
eta zarrak zapuztuta,
ikusten dira alkarrengandik
urrutiratuta;
goazen bateratuta
bide berri bat artuta,
sakabanatze onek gauz onik
ez dakarkigu ta.

6/ Orain ez dago gazterik
lengo gisara lotzerik,
ez bada ere guzi-guzia
beren gain uzterik;
baña ez itxi biderik
eskeñi gabe aukerik,
erori gabe ez dago emen
oñez ikasterik.

7/ Badakit nola gazteak
zaudeten kezka beteak,
gogait-eragin dizute ainbat
akats ikusteak.
Baña zorrotz izateak,
guk nai bezela besteak
zuzendu bear orrek berekin
dakazki kalteak.

8/ Gurekin gertatzen dana
bakoitzak iritzi bana,
gauz onerako ondo uztartzen
badaukagu lana.
Entzun bestien esana,
makurtu alkarrengana,
au da Elizak, berak egiñaz,
eskatzen duana.

9/ Eziñ une bat lasairik
edo arpegi alairik
izan, onela bagabiltz alkar
menderatu nairik;
sortu ezkerro ezpairik,
naiz-ta ez falta etsairik,
bi alderdiei entzun gaberik
ez eman epairik.

10/ Animaz gera berdiñak,
Jaungoiko batek egiñak,
goiko ta beko nola jakintsu
ala ezjakiñak;
utzi gorrotozko griñak,
besteren onaren miñak,
beti ondoren txarra du alkar
ikusi eziñak.

11/ Ez uste dana gerala,
geiago iñor ez dala;
baizik oartu bestiak ere
pertonak dirala,
Jainkoak mundu zabala
danontzat egin zuala,
ta aginpide osoa Berak
bakarrik duala.

12/ Anaitasuna bizkortu,
ez gaitezela elkortu,
alkarrizketa onuragarri
egizkoak sortu;
maitasunik ez agortu,
seta gaiztoentzat gortu,
lagun urkoen eskubideak
biotzez aitortu.

GIZONAREN ESKUBIDEAK

1/ Gaur bete dira ogei urteak
artu ziralako bideak
munduan garbi aitortutzeko
gizonen eskubideak;
baña nabarmen esaten dute
oraingo jokabideak
orduko asmo on eder aiek
jo dituala aideak.

2/ Aitormen aiek izango ziran
berritan txit pozgarriak,
garai artako kontzientziak
lasaitzearren jarriak;
baña oraindik ikusten dira
akats ikaragarriak:
esan bai asko ta egiñ gutxi,
onek dakazki arriak.

- 3/ Gizon-arrazen artean dagon
lekurik eman eziña!
Batzuen ustez beste guziak
ezertarako ez diña.
Nun dira gizon-eskubideak?
Nun da Kristoren dotriña?
Ondo zuztarrak egiña dago
alkar zapaltzeko griña.
- 4/ Mundu ontako leku askotan
gallur ezjakintasuna,
lana egin nai izanagatik
palta erosotasuna;
mixeriaren erruz zenbaitek
galtzen duan osasuna,
bera izanik zalantzik gabe
beartsuen ondasuna.
- 5/ Bai omen daude eskubideak
azaltzeko iritziak,
orretarako ere sarritan
ate guziak itxiak;
ainbeste poztu gaitu iñori
arnas artzen ez utziak;
ez ote gaude fariseoen
azpikerira jetxiak?

6/ Gizon guziak bear dutela
sarrera jakintzarako,
au zenbat bider esan ote da
guk entzun degunerako?
Diruarekin gertatzen dana
orra gure lotsarako:
armetan danak kixkaldu eta
utsa eskoletarako.

7/ Doai eder bat badu gizonak
bikaiña bikaiñ artean:
askatasuna, Jaunak emana
biziarekin batean;
mundu guziak aitortu arren
ori aoa betean,
gizona ezta aske izango
ezjakiñ dan bitartean.

8/ Jartzen bagera erreparatzen
gertu edo urrutira,
lurra landuaz neketsu bizi
diran gizonei begira,
nork ez nabaitu biak batean
amorrua ta kupira?
Oien ametsak sekula egi
biurtuko ote dira?

9/ Udaran nekepian urratzen,
neguan lanikan gabe,
onela bizi diranentzako
zenbat premi ta naigabe!
Bakar batzuek danen nagusi,
bestiak utsaren jabe,
beren izerdiz bustitzen duten
lur zekenaren mirabe.

10/ Gaur gizadiak eziñ astindu
bere gañetik trixturak,
okerkerizko pipiak jota
dauzkalako egiturak.
Sermoi politak zuzendu eta
ederki egiñ itxurak,
baña patxaraz bizi diranak
aldatu nai ez oiturak.

11/ Batzuek gora igo ziran da
eztago andik jexterik,
eta ez dute an egoteko
beste iñor dan usterik.
Beekoentzat ez al da emen
morrontza utsa besterik?
Bai ote dago gauza guziak
dauden bezela uzterik?

12/ Eziñak jota erortzen bada
zerbait egin bearrera,
bearkizunak utzi lezazke
gizon batek baztarrera;
eta ez dezan iñoiz jokatu
denontzat era txarrera,
ez dezagula geuk bultz eginda
sartu bide okerrera.

(1968/7/13)

ZURKERIA NAGUSI

- 1/ Gure lagun artean
pasatu dan gauza
zelebre samarra da,
artu diot traza;
jale ona izanik
euskaldun arraza
diruzaletasunak
eraman du baza.

- 2/ «Arkuma jan bear da
—esaten genduan—
broma bat pasatuaz
alkarren onduan».
Baña gertatu gera
eziñ ordainduan,
nunbait gusto danak ez
komeni munduan.

3/ Zortzi lagun prestatu
arkuma jateko,
ez al dira naikoa
alkar berotzeko?
Bat gertatu zan bildots
on bat ekartzeko
ta beste bat labean
bera erretzeko.

4/ Moldatuko giñala
ala nuan uste
kontuak ateratzen
asi giñan arte;
baña nola txanponak
ditugun txit maite,
ez gera konpondu, ta
geuretzako kalte.

5/ Batek agindu zuan
ogei durokua,
beste bat azaldu zan
aren antzekua,
beste laurak zioten
etzala naikua;
orra sortu zuzendu
ezin zan kakua.

6/ Au ere tratatu zan
lagun arte ortan:
bertsotan egitea
apalondo bertan;
baña gelditu gera
modu trixte ontan:
arkuma jan eziñik
diruaren faltan.

7/ Arras kukitu gaitu
oraingoan lotsak,
eta gelditu gera
ixill eta otzak;
ara noraño jua
diran gure otsak:
begiak luze bañan
patrikarak motzak.

8/ Gure arkume-gose
au etzan eskasa,
baña ezin liteke
ase bere kasa;
oraingo txanda ere
nola zaigun pasa,
arkumak badu puxka
bateko arnasa.

9/ Sabela betetzeko
danok geunden gertu,
jaten asi baño len
ordea aspertu;
koziñerua ere
erabat alpertu,
gure ametsa jaio
orduko da lertu.

10/ Jateko zortzi eta
ordaindutzeko lau,
berdintasun desberdiñ
txarra ez al zan au?
Arkume-gose orrek
oraindik badirau,
onela berriz ere
egin bear barau.

11/ Indarra badu ere
moxorrokeriak,
asko gutxiago ez
noski zurkeriak;
danok umilldu bazik
eziñ ateriak,
gero bertsoan jarri
bear komeriak.

12/ Au nun pasa dan iñork
galdetutakuan
jakingo du Olea'k
erantzundakuan,
aitortuaz arrazoi
bete-betekuan:
zurkeriak zakua
autsi zun lekuan.

JOXE OLAIZOLA ILL DA!

1/ Berri trixte bat zabaldua da:
ill da Joxe Olaizola!
Esan liteke Euskalerra
lutoz jantzia dagola.
Joan da gure urretxindorra,
utzi du ariñ kaiola,
atsedenezko askatasuna
Jaunak eman dezaiola!

2/ Egun auetan zure omenez
«Agur, Jaunak» aditzian,
alako poz bat nabaitutzen det,
Joxe, nere biotzian;
zeruan ere abestuko da
ori, nere iritzian,
euskaldunen bat zure ondora
irixten dan bakoitzian.

3/ Pitxi polit bat galdu degu ta
emen gaude danok kezkan,
ezpaitakigu orrelakorik
lur onek besterik daukan;
bere abestiz gure biotzak
pozez laztandurik zeuzkan,
amets gozotan lilluraturik
nola «*Aurtxo*a seaskan».

4/ Zure animak astindua du
katiatzen zuan larra,
eta batean ezagutu du
aingeruen irriparra;
baiña guretzat or utzi dezu
zure doñu zerutarra:
sekula ez da gau biurtuko,
ez, zure «*Illunabarra*».

5/ Egunak dira «*Urte-leloak*»
entzuten egon nintzala,
esango nuke animarentzat
baretasun bera dala.
Musikan zure aunditasuna
an bai nabarmentzen zala!
Eziñ ukatu Euskalerria
gogoz maite zenduala.

6/ Ez dakit ziñan bertsolaria
edo ziñan olerkari,
nik ezin bada neurriak artu
zure lan ugariari;
bizitz guzia pasa zenduan
biotz xamurrez kantari,
ziñan guzia eskeiñi nairik
Euskalerra kuttunari.

7/ Zarat aundirik gabe egiñak
orra makiñatxo bat lan,
Euskalerra ikarri dio
zure musikari zer dan;
gutxi dakit da gauz aundirika
nik ezin dezaket esan,
bakar bakarrik ao zabalik
nola entzun izan dedan.

8/ Noizean beinka sortu oi dira
zu beziñ gizon jatorrak,
apaltasunez aberastuak,
langille mardul, bizkorrak.
Zu gabe utzi bagaitu ere
alabear derriorak
beti-betiko emen ditugu
zure doñu illezkorak.

9/ Euskalerria utzi bearra
iritxi zitzaizunean,
zure anima aske egaran
or goira eldu zanean,
besterik gabe zeruan sartu
ote ziñan zuzenean?
Ala, parean jiratzoren bat
eman da ondorenean?

10/ Dударik gabe zure lan ori
eskertuko du geruak,
ainbat goxatu du gure lur au
zure maitasun beruak.
Ni ziur nago beste lagun bat
badutela aingeruak,
baiña izar bat gutxiago du
Euskalerriko zeruak.

AU BIZIMODUA!

- 1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri
gaurko bizikeraren
ezagungarri.
Soseatu eziñik
emen gabiltz larri,
aitzakiak ugari
emanaz alkarri.
Oso ta elbarri
geigoren egarri
nola geran sarri,
bear osagarri.
Ta ortik zorionik
eziñ ekarri.

2/ Lengo bizimodua
etzala samurra?
Ez det esan nai ori
dala gezurra.
Nekez eta izerdiz
laiatuaz lurra
bildu izan genduan
gure jan apurra;
otzari bildurra,
basoan egurra,
osasun laburra,
bizitza makurra.
Alde ederra dago
atzotik gaurra.

3/ Gogoan izan arren
lengo bizikera,
ez du nai begiratu
iñork atzera.
Diran erreztasunei
emanik sarrera
igo gera geiago
ziranen parera:
jan ere naiera,
mudatu jazkera,
semeei karrera,
lanik ez zartzera.
Ala ta guztiz ere
konforme ez gera.

4/ Ezbear txikienak
guretzat ekaitzak,
erlijio-klase bat
degu bakoitzak.
Galdu ditugu arras
geroko esperantzak,
geuk dauzkagulagoan
zeru-lurren giltzak.
Munduari aintzak,
maitasunez otzak,
errezuak motzak,
legorak biotzak;
fedea galtzeakiñ
datortzen gaitzak!

5/ Itxaropen guzia
aurrerapenetan,
elduleku sendoa
ez da benetan.
Ara zer ikusten dan
gure egunetan:
danok atsegiñ billa
uts diran gauzetan.
Ta, nere ustetan,
gure eleizetan
oitura onetan
mandamentuetan
saia ezkerro, dana
or eskuetan.

6/ Danerako astia
nola falta zaigun,
beti laxterka gabiltz
gau eta egun.
Ezitz'eztiran tresnak
arturikan lagun,
nora garamazkiten
ez al da ezagun?
Ezin bizi bigun,
arnas artu zagun;
umezurtz ta alargun
utzi ez ditzagun,
familikoen kontu
izan dezagun.

7/ Batetikan bestera
ezin gera aspertu,
animako gauzetan
berriz alpertu.
Pausoz mundu guztia
nai genduke neurtu,
gure egun laburrak
len baño len urtu,
gauari lapurtu,
danerako sortu,
noranaiko gertu,
osasuna lertu.
Ondo bizi nai dunak
patxara artu.

8/ Jaunaren legea du
zorionak abe,
bera gorde-ezean
zenbat naigabe!
Au ere mudatzeko
ustez gera trebe,
bide txarretik nola
goazen xuabe.
Neurri ori gabe
milla atsekabe,
griña txarren labe,
utsaren mirabe;
baña Jaungoikoa da
guztion jabe.

9/ Iñori laguntzeko
gabiltza txit uzkur,
geuretzat nai ditugu
zeru eta lur.
Premian dagonari
emateko maltzur,
geure buruarentzat
ez gera orren zur.
Gezurra bai samur,
egitikan balur,
nekeari agur,
penitentziz labur.
Gu zuzentzen badago
naikoa lan gaur.

10/ Mundu onetarako
zer degun onena?
Gauza guztiak dute
beren ordena.
Eduki bear degu
ontan sinismena:
Jaungoikoa bakarrik
maitatu aurrena,
ta begirapena
projimoarena;
au da bigarrena
garbi dagoena.
Eta geroko izan
itxaropena.

MUNIATEGI'RI

- 1/ Euskalerrian sarri izaten
dira zerbaiten neurketak:
abildade ta indarrarenak,
bertsolari-txapelketak;
guk odolean daramazkigun
gauzak dira, ez nasketak;
iñoiz kontuan artzeko berriz
oietako azalketak,
aurtengo danak ere ez dira
nere ustez berriketak.

- 2/ Aurtengo bertso-txapelketaren
egoazpi epeletik
irten ondoren, txori bat kantuz
or degu Bizkai aldetik.
Bertsolariak jeiki oi ziran
erri soillaren artetik,
etzan millagro len azaltzea
sagardotegi batetik,
baña au da gauz arrigarria:
gaur Unibersidadetik.

- 3/ Guk ere bear genduan noski
abogaduen itzala,
arrixko txarrak baidaude emen
babestzallerik ez dala.
Esan liteke oraiñ artean
umezurtz bizi giñala,
baña karrera duten gizonak
gutar egiñak dirala.
Nork esan oraiñ bertsolariak
arrote utsak gerala?
- 4/ Zorionean gure arraza
dago sendo eta zutik,
kimu berriak ematen ditu
uste ez degun lekutik;
zalantzik gabe txit begi onez
ikusten dute zerutik,
jaso biotzak eta aldendu
kezka guziak burutik,
oraindik ere gure Jainkoak
ez gaitu utzi eskutik.
- 5/ Gure euskera ainbat astindu
gogor artuta dagonak
aldezkariak beretzat jotzen
ditu premizko ta onak.
Entzun ditzagun maitetasunez
bere deadar sakonak:
Zenbat arrazoi kendu dizkigun
guri ezjakiñ egonak!
Orregatikan bear ditugu
karrera duten gizonak.

- 6/ Itxaropenez nator kantari
gaur, Abel Muniategi,
zure bertsoak entzuna naiz ta
pozik bota dizut begi;
orain bezela egondu arren
indar gabe zenbait egi,
abogaduak jakiten dute
noiz-nola eman arpegi;
euskeragatik egiten dana
ez da izango geiegi.
- 7/ Ez dakit nora jo dezakezun,
gaztea zera oraindik,
orregatikan ausartutzen naiz
zerbait esaten emendik:
ondo dakizu jatorri zarra
nola datorkigun lendik,
arraza-muiña eta izkuntza
maita itzatzu barrendik,
garbi ta txukun gorde ditzagun
al baldin bada iñundik.
- 8/ On asko egin dezakezu zuk
bide orri jarraituaz,
euskaldun zintzo guzien gisan
beti garbi jokatuaz,
erririk erri gure kondaira
berritu ta goratuaz,
okerkeri ta gaizki egiñak
zure bertsoz zigortuaz,
itz baterako gauz bakoitzari
bere izenez deituaz.

9/ Zorion bero eta sutsuak,
poztu, anai bizkaitarrak,
or zuen zeru ortan dizdiraz
argi berridun izarrak:
lur ortan sortzen dira oraindik
mutill argi ta azkarrak;
jakinduriak gure aldera
jarririk bere indarrak
ezkur bikañak emango ditu
Gernika'ko aritz zarrak.

10/ Udaberrian kukua alai
kantari asten danean,
baso ta baratz usai gogozko
lozez jazten diranean,
uste oso bat laster pizten da
gure biotz barrunean:
nola ez bada frutik espero
ainbat lore dagonean?
Euskalerrian ez da amaitzen
lorerik, zorionean!

BIOTZ-ALDAKETA

1/ Jartzen bagera bukatu zaigun
urte zarrari begira,
bere buruan arrigarrizko
gauz pranko gertatu dira.
Afrika'tikan zabaldua da
berria mundu guzira:
gorputz ill baten biotza sartu
dutela gorputz bizira.

2/ El Cabo uri bat Afrika'ren
egoaldean dagona,
oraintsu antxe ill da gizon bat
Washkansky zeritzaiona,
gizarajoa biotzetikan
elbarriturik zegona;
bera ill arren bizirik dago
irabazi zuan sona.

3/ Or ezbearrez neska gazte bat
iltzea nun dan gertatu,
mediku batek aren gorputza
azkar aitari eskatu.

Washkansky ori sendatzearren
ondo trebe du jokatu,
bere biotza kendu ondoren
neskatxarena txertatu.

4/ Oiek guziak eginda bizi
emezortzi egunean,
zer pozak eta estuasunak
egun aien barrenean!

Eriotza motz lotu zutela
pentsatzen genduanean,
biriketako gaitz purtzill batek
eraman du azkenean.

5/ Uste genduan etzegoala
biotzari ikutzerik,
ain gutxi bera urratu eta
bizirikan gelditzerik.

Baña oraintxe nork pensatzen du
kenduta ere iltzerik?

Gaur egunean ia ez dago
ezerekiñ arritzerik.

6/ Sinisten ere naiko lan dago
olako gertakizunak,
muga gabeko soro zabalak
sendakintz-eginkizunak,
nun saiatu ta zer ikusia
daukaten bearkizunak
jaso ezkeror ortik jaulkitzen
zaizkigun ikaskizunak

7/ Sendagilleak erakutsi du
ain gaitasun berezia,
ari batetik zintzilik dar-dar
egon da mundu guzia.
Zoritxarrean oraindik gaitza
ez egon ondo ezia,
beti bezela eriotz latzak
irabazi du auzia.

8/ Bizirik ezin liteke emen
ez erosi ta ez saldu,
au El Cabo'ko gertakizunak
garbi asko du azaldu,
eta orobat egi trixte au
berriz munduan zabaldu:
batek bizia izango badu
beste batek bear galdu.

- 9/ Gaur bestiengan zergatikan ez
izan sekula federik?
Biotzik gabe bizi liteke
istantpatian bederik.
Zerbait on egiñ nai duan ari
ez itxi iñoiz biderik,
Jainkoak ez du baztarreratzen
iñoren abildaderik.
- 10/ Aurrerapenak alde dauzkagu
larrialdi mingotzetan,
baña oraindik ez dezakete
dana gure biotzetan;
ez jarri bada uste osorik
emengo laguntz motzetan,
Jaunak bakarrik agintzen baitu
bizitz ta eriotzetan.
- 11/ Urkatzen gaitun soka latz ori
nai genduke guk ebaki,
denborarekin degun burruka
geure alde erabaki.
Osasunari jarriagatik
zazpi milla arabaki,
zenbat denboran bizi bear dan
Jainkoak bakarrik daki.

12/ Bizi-nai onek sortzen dizkigu
makiña bat atsekabe,
mundu koxkor au nork utzi nai du
alegiñak egin gabe?
Baña derrior jarraitu bear
eriotzaren mirabe,
nai izan arren gu eziñ egiñ
geure arnasaren jabe.

PATXI ALTUNA'RI (1)

1/ Bertso batzuek eskeñi nairik
nator, Altuna'tar Patxi,
asko ez nuan pentsatzen baña
orra aukera iritxi;
nik uste *hache* orri bideak
zenizkiozula itxi,
eta bestien esanetara
al zera zu ere jetxi?

2/ Egiña dezun liburu baten
berri eman zidaten bart,
berari buruz entzunak ditut
amaika iritzi apart;
zorigaiztoko *hache* dala ta
zergaitik ainbat zalapart?
Zuk ez dakit nik, baiña euskerak
laster egin bear du zart.

(1) Bertso auek, Altuna'ren baimenarekin argitaratzen dira emen.

3/ *Hache*'rik gabe naiko lan badu
gaur euskeraz ikasteak,
zer onura du len zaillak ziran
lanak zaillago uzteak?
Premirik gabe, ai, guretzako
geuk dakarzkigun kalteak!
Ni bai arritu maixu jaun batek
gauz oiek ez ikusteak!

4/ Txomiñ Agirre'k dion bezela
euskeraz txukun idazten
jakin liteke pasa ezker
ordu erdi bat ikasten;
baiña len garbi zeuden bideak
orra oraiñ asi nasten,
ori eginda gure izkuntzak
zer ote du irabazten?

5/ Esango dezu zuk ez dezula
gure izkuntza nai galdu,
baiña «*Euskera ire laguna*»
len *hache* gabe zan saldu;
eta zuk atzo erakutsia
gaur nola dezun zapaldu,
oraiñ idazten jakin nai dunak
berriz asi bear al du?

6/ *Hache* eskuan dezula zatoz
gaur izkuntza babestera,
joan al zera lengorik ezer
nai ez dutenen aldera?
Oraiñ artean olako gabe
bizi izan da euskera,
guk ere noizbait esan dezagun
bagera edo ezgera!

7/ Euskerak arnas estua dauka,
danok gaude igarrita;
au ikusita dakiguna da,
ez iñun irakurrita;
baiña zer gabiltz sendagai oiek
kanpotikan ekarrita?
lore gaixo bat indartu nairik
zabor artean jarrita?

8/ Batzuek nundik erreztuko ta
besteak nundik zailduko,
era orretan ez degu iñoiz
euskerarik indartuko;
Zu ere asi al zera oraiñ
nundik zintzurra lotuko?
Bide ortatik ez dezu, Patxi,
iltzen dagona piztuko!

9/ *Hache* premizko duala oso
izkuntzaren batasunak,
entzunak gera era ortara
mintzatzen zitzaizkigunak;
euskerarentzat ez du kalterik
orri garbi erantzunak:
ez dizkiola *hache*'k kenduko
dituan estutasunak.

10/ Zu ere *hache*-zaleetara
eroria azkenean,
zutik egoten lan da ekaitzak
astintzen gaituanean;
ez al zekizun zer gertatzen dan
eztabaida bat danean?
Arrazoirikan ez duan ura
arroena geienez!

11/ Bertsolariak *hache*'rik gabe
euskerara idatzi zuten,
baiña zertako egongo gera
berritxu aiei entzuten?
Zuek ez egiñ jaramonikan
eskolarik ez baizuten;
ia jakintsu danon artean
lenbailen iltzen dezuten!

12/ Oraingo zure liburu onek
eman didan eztenkada!
Bertsolariak orra azaldu
trixte bere biozkada;
Aita Altuna, egiaz dizut,
nere barruan kezka da:
euskerarentzat ez ote dan au
azkenengo mazokada.

(31/5/69)

LEGAZPI'KO PESTAK

- 1/ Negu beltzari bizkar emanda
sarturik udaberrira
legazpiarrok pestetan gera
emendik egun gutxira,
lan-saio eta tramankulu-ots
biurturik kale-jira;
noizean beinka atsedentxoak
komeni izaten dira,
ondo pasatu nai dezutenok
etorri gure errira.

- 2/ Olak industri biurtu dira,
ia ez degu artzantzik,
gaurko Legazpi'k ez dauka noski
lenagoko aren antzik,
berritu gabe ez da gelditu
kale edo enparantzik;
egun auetan ez da paltako
alaitasun eta dantzik,
aspaldi ontan aurrera goaz,
ez izan orren zalantzik.

3/ Ogei eta bost urte dirala
zan ikastetxe bat jaiki,
beste berri bat bikaiñ askoa
bukatuko dute aurki.
Onek ematen duan poz ori
ai nik esaten baneki!
Bai, zenbait semek bere erria
osatu oi du egoki,
mesede oiei neurria artzen
oraindik iñork ez daki.

4/ Buru azkarrak langille piñak
laguntzat dauzkatenan,
erri bat eziñ egon liteke
beti bezela lenean,
Legazpiarrak gaur badaukate
sona galtzairu-lanean,
emengo gauzak estimatuak
or lurbira geienez,
onelakoak egiten dira
zintzo jokutzen danean.

5/ Alaitasuna nai dezutenok,
atozte gure artera
Mirandaola ta Gorosti'ko
Gurutzak agurtutzero,
lanaren bidez erri bat nola
altxatu dan ikustera;
pake santuan alkar arturik
emen jolastuko gera,
etorritako penarik gabe
juango zerate atzera.

GAZTEDIAREN ALDE

(Doña: «Frantzesaren idea...»)

1/ Gaurko gaztedi onek
ainbat aitzaki
iñork izan ote du?
Jainkoak daki.
Asko daude guri galdez:
«Jokatzen al dute legez?
Atzera ez al dijoatz
aurreratu ordez?»

2/ Gizon edadetuak
ala diote:
«Gazteei griña txarrak
sortu zaizkite».
Egiñikan esamiñak
daude zabar eta fiñak,
baña gaurko gazteak ez
lengoen berdiñak.

- 3/ Orain gazteak ez du
gaztearorik.
Inoiz ikusi al da
orrelakorik?
Azkar ezi lanerako,
guk nai degun biderako,
baña dana izan eziñ
bere onerako.
- 4/ Dana eginda nola
zaion ematen,
ez du pentsatzen ere
lanik izaten.
Ames gozoz ezin poztu,
zorion-denbora moztu,
eskubide asko zaizka
gazteari ostu.
- 5/ Zer jan da nola jantzi
guk esan dana,
nun jostatu ere bai,
auxen da lana!
Ez gaitezen ontan pasa,
artu bear du arnasa,
gizon egiñ dediñ noizbait
baña bere kasa.

6/ Zer du egitekotzat
gaurko gazteak?
Itxutzen du dirua
irabazteak.
Taberna ta dantza zakar
oietara juan azkar,
musika gabeko doñuz
poztutzera alkar.

7/ Maitatzen du zarata
ta zalaparta,
ontantxe bai duala
aide aparta.
Jantzi kaskoz eta larruz,
motorretan makakorruz...
Onela ez ote dabiltz
aurrekoen erruz?

8/ Orra zer gertatzen dan
sarri gurekiñ:
gauz bat esanagatik
beste bat egiñ,
justizia batzuentzat,
dana libre bestientzat;
au ejemplo ona al da
gaztediarentzat?

9/ Bakar batzuek asko,
bestiak gosez,
lana fiñezan egiñ
eta deus ez.
Bear duan ari eman,
sarritan bai ori esan,
gero eziñ konpondurik
alkarrekiñ teman.

10/ Gaztea ez izanik
gorputz bakarrik,
ez al dauka anima
landu bearrik?
Azalkeri oiek autsi,
onbidea erakutsi,
siñisbide danak beintzat
ez ditzala utzi.

11/ Beti gauz bat ez esan:
«Egin zazu au!»;
baizik ixpillu izan
egun eta gau.
Mardul eman maitasuna,
bartzartuaz laztasuna;
erein gogoz poztasuna,
ez etsitasuna.

12/ Nagusikeri oiek
utzi ditzagun
izanaz gaztientzat
argi ta lagun.
Dira diran gisakoak
ala egiñ Jaungoikoak,
guk nai arren eziñ izan
gu bezelakoak.

LOIOLA'KO ERRI-IRRATIA
LAGUNTZ-PREMIAN

- 1/ Zugana dedan maitasun guziz
natorkizu gaur, Brinkola,
ondo baidakit gure izkuntza
or oso mardul dagola;
berri alairik ez daukat baña
eziñ ixildu iñola,
laguntza-eske estu antxean
nola daukagun Loiola.

- 2/ Txori alai bat kanta-kantari
badegu Euskalerrian,
biotzera itz egiten duna
txit euskera xamurrian;
baña kabia gaur egunean
dauka arrixko txarrian
eta tamalez bi egotxuak
zerbait moztu bearrian.

3/ Esan nai nuke txori polit au
Loiola-irratia dala,
eta laguntzen ez badiogu
ixildu litekeala;
gerta ez dediñ garaian gaude
ta saiatu egiñala,
ontan daukagun zer ikusia
ez uste danik makala.

4/ Jarri gaitezen pixka batean
irradi oni begira,
ots egin gabe bera dijoa
premia dagon tokira.
Guretzat saio apañagoak
nundikan entzuten dira?
Ai, zer utsuna oiek betiko
beñ amaituko balira!

5/ Gaur egunean bizi geranok
badegu amaika etsai,
nundik datortzen salatutzeko
gure ordez or dago zai
Jesusen Lagundiaren gisan
beti gertu eta ernai;
on egiteko daukan kemena
besterikan ez nuke nai.

6/ Gure onean nor nekatu da
orrenbestean gaurdaño?
Neke oietxek gaxotu dute
geiago eziñeraño.
Lagun zaiogun bizi dan arte
danok al deguneraño,
oraiñ sendatzen errezago da
il da gero pizten baño.

7/ Txoriak ez du kantatu izan
ez baldin badu arbolik,
da nun babestu dezakegu guk
gerta ezean kaiolik?
Arren ez esan Loiola'gatik:
«Guri ez digu ajolik!»
Ez dezatela albotik esan
ez daukagula odolik.

MUTIKOAK MAIXUARI, BERE
URTE-BETETZE EGUNEAN

(Donua: «Aizak i, motell mañontzi...»)

- 1/ Aitak au esan dit neri:
«Maixuangana juan ari,
eta badakik zer esan bere
eguna dunari;
amaika biurrikeri
barkatzen dizkik ark iri,
eman eskerrak igatik ainbat
saiatzen danari.»
- 2/ Esker txarreko sekula
izan bear ez degula,
auxe bai sarri, maixu jauna, zuk
esan diguzula;
urte-betetze dezula
bai goguan daukagula,
opa dizugu asko geiago
bete ditzatzula.

- 3/ Badakigu zaituguna
erakusle ta laguna,
oker gatozen landaretxuak
zuzentzen gaituna,
ezjakintasun illuna
argi biurtzen diguna;
urte askuan bizi dedilla
gure maixu jauna.
- 4/ Zigor da kaskarrekuak
ondo merezitakuak
izaten dira geientsuetan,
eta premizkuak;
baña zure mutikuak,
kurutzaturik eskuak,
eskatzen degu zaindu zaitzala
zerutik Jainkuak.
- 5/ Nola zeure egunean
zauden umore onean,
gauz bat eskatu nai nizuke nik
denon izenean:
Geldi eziñ egonean
sumatzen gaituzunean,
xaguak daude eta ez sartu
gela illunean.

SASI-EIZTARI BATI

- 1/ Gizon au beti prest dago berriz neri adarra jotzeko; ez dakit zer gaitz egin diotan ni ainbat minberatzeko, pake santuan dagon lagun bat onela zirikatzeke; gramatikaren bearrik ez da au ondo ezagutzeko, uso-eizean ez da irixten nere parean jartzeko.

- 2/ Gauz asko esan-arazten ditu batzuetan inbiriak, nik ainbat uso eziñ moldatu, oiek dira komeriak! Ortikan datoz onen axanpa, irrintz ta trastekeriak, iñundik ere mee utzi nai nau nolako maltzurkeriak! Nun geldituko ote dirade onen dotorekeriak?

3/ Iñola ezer ezin du egiñ
reglamentuz jokatuta,
argatik sarri egon izan da
sasian izkutatuta.
Zer klasetako eiztaría dan
daukagu ezagututa:
gustora asko ibilli oi da
gure kotuan sartuta,
baña bein larri asko omen zan
goardak arrapatuta.

4/ Ez nioke nai egiñ ordea
bertso auekiñ gaitzikan,
iñork ez dezan uste gauz onik
berekíñ ez duanikan.
Esan bearra dexente baña
ez borondate txarrikan,
lezioren bat emango diot
Jauna lagun oraindikan,
lotsaz beteta jua bear du
nere ondotik korrikan.

ORDAÑETAN

- 1/ Lagun on eta jator batek gaur
orra zer didan eskatu:
«Nere arreba mojatxoentzat
bertso batzuek moldatu».
Amaika bider nola nerekiñ
bera ondo dan portatu,
ainbat mesede merezi du ta
iñola eziñ ukatu.


- 2/ Zeruko Jaunak bere dei gozoz
otsegin zizutenean,
Aren naiera jarri ziñaten
apaltasun otxanean;
oraiñ argatik bizi zerate
pakerik osoenean,
garbitasunez apaindutako
zeru-bide zuzenean.

- 3/ Gaztearoan zuen biotzak
etziran maitasun-legor,
Jaungoikoaren naiera eziñ
jarri bestela ain jator;
zalantzik gabe joan ziñaten
egizko poz billa bizkor,
mundu onetan izan liteken
zoriona ortik dator.
- 4/ Dira zuenak izan litezken
gurasorik jatorrenak,
zintzotasuna berekin dakar
aietatik datorrenak;
zuek zerate aien alaba
kuttun da maitekorrenak,
Barrandiola'k eman dituan (1)
lorerikan ederrenak!
- 5/ Aitak eta amak zuen izenak
aitatzen dituztenean,
zer zoriona nabaitzen duten
bere biotz barrenean!
Maitasunezko malkoz begiak
busti arren geienean,
ixuri gabe baretzen dira
poztasunez azkenean.

(1) Barrandiola, Brinkola'ko baserri bat da.

6/ Kristautasunez sendodutako
sendian jaio ta azi,
ta nai zenduten bide onari
jarraitzen nork galerazi?
Santutasunez bizi ta nola
zerua ez irabazi?
Jesukristoren aukeratuak
badute ainbeste grazi.

AITAREN SAMIÑAK



- 1/ Umiak azitzeak
ene zenbat kezka!
Baiña, Jauna: Zergaitik?
Nago ni galdezka.
Alaitasunari nola
erantzun nik baiezka,
sentimentu trixteak
badauzkat gaiñezka?

2/ Guraso izatera
iritxitakuan,
umetxuak kabian
ikusitakuan,
ustez zorion guziak
geuk ditugu eskuan,
kabitik aldegingo
ez dutelakuan.

3/ Bizitzaren joana
guk ezin gelditu,
guztiok lege ontan
bear errenditu.
Maitasunak berak ere
zigorkadak baditu:
beti poz billa eta
trixtura arkitu.

4/ Seme, noiz zan oraindik
aurtxo bat ziñala,
zuri begira pozez
egoten nintzala,
alkar laztanduaz biok
maite-maite giñala?
Au pena ikustian
azia zerala!

- 5/ Lo egiten genduan
lepotik elduta,
zure esku txikia
nerian artuta.
Nola etzan esnatuko
aitatxo trixtetuta
ixil-ixilik alde
egin diozu ta?
- 6/ Zure biotz taupadak
nerian onduan
maitasunez beterik
nabaitzen nituan.
Baiña oraiñ arkitzen naiz
penaz ia urtuan,
kabitikan egara
egin baizenduan.
- 7/ Iñoiz bakar-miñikan
baldin bazaizu sortzen,
ordu asko ez pasa
etxera etortzen.
Nik lagunduko dizut, bai,
berriz zorion lortzen,
aitaren maitasunik
ez baita agortzen.

8/ Zu nigandik joatia
bai pena detala;
eziñ etsi, naiz jakiñ
gertatuko zala.
Oartzean kabitikan
urruti zabiltzala,
etzaite aztu nere
semia zerala.

GAURKO IDAZKETAK

- 1/ Ausarturikan zerbait
gaurko idazketak,
zenbaiten lanketak,
bertsoak ipintzera
eman dit kasketak.
Euskerari egiten
zaizkan iñausketak!
Ikaratu bear bat
orko aizkolketak;
ez dira pozgarriak
olako nasketak.

2/ Gure izkuntzan egin
nai duten zarrantza
au esku-arantza!
Ondatu bear dute,
ez izan zalantza.
Baldiñ indartzen bada
olako artzantza,
euskerak izango du,
badet esperantza,
auntzak moldatutako
baratzaren antza.

3/ Ai, euskal idazleok
ez ainbat zabartu!
Zaitezte oartu
euskera etzaigula
iltzeraño zartu.
Gauz bat bear dezute
buruetan sartu:
gure *espresioak*
ez arras bazartu,
gazel *dialekto'tzat*
ez dezaten artu.

4/ Gaztelera artuaz
euskeraren orde
guk au nola gorde?
Anai maiteok, ontan
oso oker gaude.
Mugaz aruztik ere
euskaldunak daude,
angoak zertan jarri
emengoen mende?
Amak bear du seme
guzien iñude.

5/ Euskera igarotzen
ari dan leloak
kentzen dizkit loak,
garirikan ez baitu
ematen oloak.
Txomiñ Agirre'k utzi
zizkigun zuloak
bete ustean dabiltz.
Ai, txorimaloak!
Etzeuzkak maixu txarrak
gure *populoak*.

6/ Batzuen buruetan
ez al dago laño
begietaraño?
Ez ikusi naiago
ikustea baño.
Anka sartuaz dabiltz
hondo-hondoraño,
euskera euskal-gaizto
biurtutzeraño,
bertsolariak ere
antz emateraño.

7/ Ez dakit ari diran
euskera berpizten,
batasun irixten,
edo orretarako
ate asko ixten,
izkuntzari jantzirik
ederrenak lixten;
zenbait bere artatik
zaill da beintzat jeixten.
Piñ dabilzala ere
lan dago sinisten.

8/ Ori zaletasuna
hache orrengana
gaur ikusten dana,
nere itxaropenak
ito dituana!
Au da berriz jipoia
artua dedana.
Nunbait ez ala izan
nik uste nuana:
lan-erreztea zala
tekniko'en lana.

9/ *Beharra* eta *hori*,
hura ta *zaharra*,
ez ori bakarra;
hache-zaleen setak
badauka indarra.
Gal-artean zertako
degu belar txarra
edo loretegian
ote eta larra?
Hache gabe badakit
zer gauz dan bearra.

10/ *Errealitatea*

idatziaz noiznai,
esanez ere bai,
arpegia daukate
azaltzeko nunai;
itz berriak asmatzen
dituzte nolainai,
izkuntz bat lardatuta
geldituaz lasai.
Euskerak oiengandik
ez ote dauka jai?

11/ Omen daude *prolema*

demografikuak
berebizikuak,
ala diote gure
itxulapikuak.
Bai esaera baldar
eta sasikuak,
iñola eziñ izan
zuaitez garbikuak,
eta nork jan nai ditu
olako pikuak?

12/ Zenbait arazo dira
aĩn *universalak*,
bai gauza zabalak,
nola ulertu gure
adimen argalak?
Taloak egiteko
daude tala-palak,
artuaz *konklusio*
provisionalak;
batzuen *talentuak*
ez dira makalak.

13/ Euskaltzaindiak epai
eman du nolabait,
esan digu zerbait
hache orrixe toki
egiñ nairik nunbait.
Belar orren usaiak
erazi dit gogait,
baña itxaropen bat
neri gelditzen zait:
bere kasa igartu
litekela noizbait.

14/ «Arlote arraioak,
zer uste dezute?
—esango digute—;
euskaltzain da maixuak
emen gauzkatzute!»
Baña erakusteko
ikasi zazute;
egiteko au aundi
badatorkizute,
guzion onerako
utzi zaiozute.

15/ Ori baldin badegu
euskera batua,
zuek moldatua,
laster ikusko degu
erabat nastua,
diazuten bezela
mixtifikatua;
naiz izan *teknikoak*
elaboratua;
gatz gabe, itxusia
eta narrastua.

16/ Eskerrak daudenari
idazle trebeak
lotsaren jabeak,
pipiak jo gabeko
zutiko, abeak,
sasi-jakindurizko
pantasi gabeak,
jatortasun beraren
morroi-mirabeak,
ye-ye oriek baño
askozaz obeak.

EIZTARIAK

- 1/ Sortatxo bat bertso berri
eiztarion ezaugarri
oraiñ nai nituzke jarri.
Burutik zerbait arindurikan
gaudela diot igarri;
zentzu gutxiz gabiltz sarri,
utsaren ondoren larri,
munduaren parregarri.

- 2/ Apizio au degunak
danok oso ezagunak,
ez gera kopet-illunak.
Lagun artean mokau goxoak
gustatu oi zaizkigunak,
mundu ontako egunak,
emengo eginkizunak
eramaten dakigunak.

- 3/ Gauzarikan ederrena,
bildurikan alkarrena
zer egiñ pentsa aurrena:
«Ikusia da biar goizian
uso asko datorrena;
goazen al dan azkarrena».
Gertatzen dana urrena:
azkarrena bizkorrena.
- 4/ Aurrez kontuak atera
laxterka mendi aldera
lekua arrapatzera.
Nai gendukena uso guziak
ekarri geure parera,
ta gu batetik bestera
ontz ero baten antzera;
ondo zelebriak gera!
- 5/ Aizeari sarri usai,
lo egiñ eziñik esnai,
gau ta egun beti ernai.
Malizi asko, tranpaz betiak,
mozorrokeriz ere bai;
guztia geuretzako nai,
tabernan itxuraz anai,
mendira juatean etsai.

6/ Goizean goizik mendira,
illunduta erretira,
emazteak arpegira:
«Uste dedanez alperrik nago
zure usoei begira!»
«Bi tiro dizkiet tira,
erori zaizkit sasira,
nunbait an izango dira!»

7/ Aitzaki eta manera,
azkar etxetik atera,
lanari alde batera.
Geiena uste degun orduan
paltatzen zaigu aukera;
tiroa bota aidera,
luma-mordua lurrera,
baña okela aurrera.

8/ Mendira jua arren goiz,
galtzak zikindu arren loiz,
beti ez gabiltz arrazoiz.
Usok bota izan ditugu
guk zillarrezko perdigoiz.
Gertatu izan da iñoiz,
oraiñ egon arren sasoiz
ez nua esatera noiz...

- 9/ Usoak artu aitzaki
eta libratu egoki,
goxatzen gera ederki.
Emaztearen trabarik gabe
nork arrastoratu noski?
Baña gabiltzan poliki:
erori gindezke aurki
andreak dana baleki.
- 10/ Emazte batek esana
oraiñ botako dedana:
«Badaukat zer eramana!
Nere senarra orbelen gisa
egoaizeak darama;
nerekiñ ezkontzen lana
arek izango zuana
jakiñ izan banu dana!»
- 11/ Munizio ta kotuak
danak ongi pagatuak,
galanki egiñ kastuak.
Etxekoandreak bukatu ditu
nerekiñ zitun tratuak;
eziñ barkatu gajuak
egindako pekatuak;
geroztik dira kontuak!

- 12/ Jarri ditzagun pakeak,
ez du galerik trukeak,
emaztearen eskeak.
Gure oitura edo bizio
auek ez dira merkeak;
utsa bagiña dukeak;
urte guztiko nekeak
eramaten ditu keak.
- 13/ Jartzen bagera entzuten
bai samurra antz ematen:
porrujorra txarrak aurten.
Esan bear det ondorengoak
garbiro jakin dezaten:
errez da eizean asten,
zalla griña txarrak uzten.
Nola putzutikan irten?
- 14/ Zorioneko usua,
guretzat izen gozua,
egazti kuriosua.
Mundu erdia txoratu dezu
ez bada ere osua;
botata ezin jasua,
onek ematen dit sua;
etzera eiz erosua!

MOJATXO BATI

1/ Denborak dira guregandikan
urrutitxoan zaudela,
nunbait Jainkoak nai izan zuan
gerta zedilla onela;
baña ez uste izan zuretzaz
oso azturik gaudela,
baizik oraindik maite zaitugu
emen bazeunde bezela.

2/ Erabakia artu zenduan
munduko gauzei uzteko,
beste bide bat oberik ez da
zerua irabazteko.
Zure inbiriz ez gaudenikan
ez dezu beintzat usteko,
zuk baña geigo falta degu bai
zoriona irixteko.

3/ Jaungoiko-zale izate ori
ez al da naiko suerte?
Zure aldean zerutikan gu
gabiltza oso aparte,
Zu ezagutu zinduzten aiek
gaur ala esaten dute:
len neska gazte besterik etzan,
orain Jesusen emazte.

4/ Gogoratuko zaizu Gabonak
ere badatozkigula
ta Jesus Aurrak maitetasuna
denoi eskeintzen digula.
Nik ondo dakit bere aurrean
bitarteko zaitugula,
Berari otoitz egitean zuk
gutzaz ez aztu sekula.

5/ Nere bertsozko itz oker auek
artutzen dituzunean,
jakiñ etxeko danok gaudela
zugana maitasunean;
bixitatxo bat egin zaiguzu
era datorkizunean,
gure biotzak zai dauzkatzu ta
etorri nai dezunean.

LOIOLA'KO IRIONDO'TAR
JOXE MARI'RI

1/ Ederki asko osaturikan
egonagatikan lanez,
eskutiztxo bat egin nai dizut
gauza bidezkoa danez;
zuen liburu bat artua naiz
orko berriak emanaz,
oraindik ere bizi zerate
pozik ikusi dedanez.

2/ Esan bezela atzo artua
degu zuen liburua,
berpizte-albixt zoragarri bat
dakarkigun aingerua;
illun-antxean bazegon ere
gure etxe-ingurua,
uste genduan bezela orain
iriki zaigu zerua.

3/ Diozutenez zaudete laster
lanean asi-asmotan,
egun ori noiz izango degun
galdetu degu prankotan;
albixta orrek zer poz-zarrada
eman dun biotz-ondotan!
Sentimenturik duana beintzat
nola ez asi bertsotan?

4/ Gure kutizi danak ez dira
betetzen nai beziñ azkar,
baña oraintxe itxaropenak
bere emaitza badakar;
irradi orrengana besoak
zabalik poz utsak nakar,
ia berak ta guziok aurki
besarkatzen degun alkar.

5/ Beraz berriro laster kantari
asi bear du Loiola?
Sinistu zazu berri onekiñ
arras pozturik nagola.
Ez uste izan geiago maite
degun txoririk dagola;
nai duanean etorri, gertu
daukagu lengo kaiola.

6/ Baztar guzitan nabaitzen det nik
txori orri entzun-naia
aztu baño len nolakua zan
bere abesti alaia.
Euskaldun askok ala diote
badala ia garaia,
gure sukalde txokotan galdu
ez dediñ euskal usaia.

7/ Zalantzik gabe danok saiatu
zerate gogor lanean,
oztopo danak zapaldu arte,
sinismen sutsuenean,
gizon bezela jokaturikan
erarik jatorrenean.
Zueri esker nai genduana
iritxi da azkenean.

8/ Bene-benetan ari naiz gero,
biotzeko Joxe Mari,
ondo dakizu zenbat maitasun
diodan nik Loiola'ri.
Esker beroak orko langille
zintzo ta leial denari,
ta nere partez esku-muiñ eman
zuk Aita Lekuona'ri.

EMAKUMEAREN JABETASUNA

- 1/ Ogeigarrengo gizaldi ontan
au da nabarmendu dana:
emakumiak askatasuna
lortzen egin duan lana.
Ez uste izan au dala neri
buruan sortu zaidana,
baizik nik baño geiago dakin
jakintsu batek esana.

- 2/ Bizkai aldetik datorzkigunak
dira oraingo berriak
emakume bat dula alkate
Ubidea'ko erriak.
Kezkarik gabe artu dituzte
komeni diran neurriak,
gauz ontan ere ikasbidea
eman du Euskalerrriak.

3/ Mundua mundu dan ezkeroztik
nagusi gizasemia,
bere ondoan beti mendeko
izan da emakumia.
Baña jabetu da bere buruz
esan du «Ez naiz umia!»
Ondo pentsatzen jarri ezker
bazun zerbaiten premia.

4/ Zeruko Jaunak esanagatik
«Adan, or zure laguna»,
ederki asko ezagutu du
zer dan mirabetasuna.
Au da guztiok zalantzik gabe
aitortu bear deguna:
emakumia izanagatik
baduala nortasuna.

5/ Lotzen zituzten kate gogorak
urratu dituztenean,
emakumiak gogotik asi
zaizkigu nunai lanean,
ta lotsagarri gelditu gabe
gizonen aldamenean,
zer ikusien bildurrik gabe
orrela bear danean.

6/ Emakumiak bizimodua
atera dezake errez,
eta ez dauka egon bearrik
bakardadean negarrez,
beti ixilik eta mendean
etorkizunen bildurrez;
orretarako naikoa baitu
ondo gertatzea aurrez.

7/ Nola edozein lanetan igo
zaizkigun gure parera,
emakumien trebetasunez
iñor arritzen ez gera.
Ongi etorri, emakumeok,
agintarien sallera,
gizonezkoen gogorkeriak
pixka bat gozatutzero.

8/ Zuen irripar alaiak nola
biotzak pozten dizkigun,
nagusi baña askoz naiago
degu izan zuen lagun.
Alkarrentzako egiñak gera
ta alkar artu dezagun,
ia guztion artean mundu
obe bat moldatzen degun.

- 9/ Askatasunak zuetaraño
luzatzen du gaur abotsa,
or baztarreko egonaldia
ez dezute izan motza.
Jaso begiak ta oinperatu
bearrezko ez dan lotsa;
gu munduaren burua gera,
zuek ordea biotza.
- 10/ Begira jartzen baldin bagera
gaurko gure munduari
zer ikusten da? Alkar galtzeko
arrixkua bai ugari!
Danok agurka aurrerapenak
sortu duan indarrari,
biotzik eztan orduan beti
bildur izan buruari!
- 11/ Esaten degu munduan piztu
bear dala maitasuna,
au gabe eziñ iritxi gaurko
gizadiak osasuna.
Gizonak badu Jaunak emanik
berezko azkartasuna,
emakumiak du au osatu
dezaken gozotasuna.

12/ Sartu zaitezte bildurrik gabe
munduko arazoetan
eta ez egon eskubiderik
ez dezuten zalantzetan.
Seme-alabak ez dituzute
gorde zuen erraietan
gero nolanaizteko danak
edozeiñen eskuetan.

JOXE LUIS GORROTXATEGI'RI
ZEUTA'N

1/ Gorrotxategi, pozik artu det
gaur nik zure eskutitza,
lagun jatorren albixtak nola
alaitzen duten bizitza!
Bertsorik eziñ bota alkarri,
auxe bada naiko gaitza!
Baña atsegiñ det zuk izana
itxurazko gudaritza.

2/ Nagusi gazte batekiñ zaude
zeuk esaten didazunez,
gauean lasai lo egiñ eta
zer egiñik ez egunez.
Alperkeria lagun txarra da
zeuk entzungo zenduanetz,
gorputz-animak zaindu itzatzu
arretaz ta osasunez.

3/ Or beti pozik bizitzen ez da
izaten oso samurra:
askatasuna urruti eta
sarri zerbaiten bildurra;
goseak dagon txoriarentzat
ez oso negu laburra,
baña ez etsi, ikusko dezu
berriz bertsolari-lurra.

4/ Nik jakitean Zeuta'n ainbeste
euskaldun bazaudetela,
bertsotan ere or alkarrekiñ
jardun izan zeratela,
gure izkuntza eta oiturak
gordeaz zabiltzatela,
maite zaituztet nere semetxo
kuttun izanda bezela.

5/ Alabearrez utzi zenduten
danok zuen sorterrria,
aita ta ama, andregaiia ta
etxea eta erria.
Len mutill zana etorriko da
egiñik gizon berria,
ez aztu gero au pentsatuaz
dagola Euskalerrria.

- 6/ Or gudaritzan igaro izan
dira txit egun alaiak,
ala agintzen baitu gizonak
orduan daukan garaiak.
Bata bestia babestu beti,
ez izan ortan lasaiak,
gogoratuaz gu euskaldunok
gerala danok anaiak.
- 7/ Bertsolari bat nitzaz oroitzen
dala jakin dedanean,
alako poz bat nabaitu det nik
biotzaren barrunean;
zuk badakizu zer gertatzen dan
orla jartzen geranean:
nai eta nai ez bertso-jario
ixill eziñ egonean.
- 8/ Zintan gordeta ementxe dauzkat
oraindik zure bertsuak,
an txapelketan botatakuak
egoki ta mamitsuak.
Eskatzen dedan gisan nai badu
gure Jaungoiko altsuak
entzunaz pasa bear ditugu
biok une eztitsuak.

9/ Ai, Joxe Luis, juango dira
gudaritzako egunak,
garai batian guri txit luze
egiten zitzaizkigunak;
ondorenian izango dira
momentu gozo bigunak,
besarkatzeko zai baitauzkatzu
Legazpi'n zure lagunak.

BAT-BATEKO BERTSOAK

Erlakaizten bat irten, eta gaxo arkitzen omen zan. Arpegi txar samarra zeukala esan omen zion bere emazteak eta onela kantatu omen zion:

Mundu onetan bizi bearrak
baditu naikua lanak,
osasunikan ezetik datoz
emengo naigabe danak;
batzutan janak gaitz egiten du,
beste batzutan edanak,
arpegi onik eziñ eduki
suprimentua daukanak.

Zutik aspertu arren, jarrita
iñola egon eziña...
mutillak, ez dek gauza ederra
nere ipurdiko miña!

Oso lan gutxi komeni zait ta
janaria ere piña,
obe genduke askoz *Ilintxa*'n (1)
bertsotan ari bagiña.

★ ★ ★

Eguraldi txarra zan egun batean, fa-
milirako zerbaitekiñ etxeratu omen zan.
Sukaldean sartzerakoan:

Aspaldi ontan ibilli arren
diruz naiko urri ta me,
mantendu bear nere burua
andrea eta bi ume;
orregatikan sarri ikusten naiz
neu morroi ta neu neskame,
ala ta guziz ere bizi naiz
oso pozik ta konforme.

★ ★ ★

Igande-egun batez, Loiola'ko irratian
bertsolariak entzuten izanda etxerakoan,
Aizpurutxo'ko tabernan sartu omen zan
beste lagun batzuekiñ. Ezagun batek ber-
tso bat botatzeko eta bertso bat botatze-
ko esaten omen zion. Arratsaldeko ordubi
ta erdiak ingurua izan, eta onela bota
omen zuan:

(1) *Ilintxa*, Legazpiko alkarte edo soziedade
bat da.

Ikusten danez nere bertso bat
oraiñ entzun nai zenduke,
aldebatera kutizi ori
aixa beteko nizuke;
baña dioten gisan bazera
zu Aizpurutxo'ko duke,
nik amar ere botako'izkitzut
bazkari on baten truke.


Baña etxera juan izan bear omen zuan
bazkaltzera.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.

32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverría*: Neronek tirako nizkin.
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa* (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

84. *M. Matxain*: Uste gabean.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-sembleak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA